


ETXABURUA vs ASTONDOA:
Bidea irekiko duen emakumeen
arteko desafioa? > 12

DATORRENA
Bost gogoeta Iruñeko
aldaketari buruz IÑAKI SOTO > 3

2015eko ekainaren 13a | IX. urtea • 420. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



GERO ETA ALDE HANDIAGOA

HERRITAR ABERATSAK GEHIAGO ABERASTEN, ETA, POBRETUAK, POBREAGO. HORIXE GERTATU DA MUNDUKO
HERRIALDE INDUSTRIALIZATUETAN AZKEN HAMARKADOTAN, OCDE ERAKUNDEAREN ARABERA. > 4 GETTY IMAGES

12

Pobreen eta dirudunen arteko aldeak gora egin du 04

Ikusmira: Demokraziaren aldeko kurduen hautu irmoa 08

Bloomsday: Leopold Bloomen urratsei jarraika Dublinen 09

Etxaburua vs Astondoa: bidea irekiko duen desafioa? 12



Anboto mendiko buzoiak mende bat egin du hodei artean 17

Cabello eta Goenaga, Nepalek batzen dituen bi euskaldun 22

Elikagai ekologikoak, planeta zaintzeko modu eraginkorra 27

In fraganti: Aritz Munarriz 28

Behatxulotik 31

**28****SINADURAK:**

03 **Iñaki Soto:** Bost gogoeta Iruñeko aldaketari buruz

10 **Ander Gortazar:** Hiriak

11 **Mikel Zubimendi:** Aldaketaren politikak ez du flagelazio erlijiosorik behar

16 **Ainara Azpiazu «Axpi»**

20 **Arantxa Urbe:** Nola dakigu ikasi dugula?

21 **Iker Barandiaran:** Gipuzkoarren kritikotasuna (II)

26 **Koldo Sagasti:** Difteria kolektiboa

26 **Mirari Martiarena:** Iraungitze data

30 **Edurne Larraza:** Informatikaren irakaskuntza: Code.org



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZAK) DIRUZ LAGUNDUA



Gipuzkoa
BERRIA

{ datorrena } Iñaki Soto

Bost gogoeta Iruñeko aldaketari buruz

Datorrenari buruz bai, baina gaur ez nator mundu zabalaz hitz egitera, baizik eta gure mundu txikiaz, Iruñea berari buruz, hain zuzen ere. Barkatuko didazue lizentzia, baina, dena ondo bidean, hau irakurtzen duzuenean Joseba Asiron Iruñeko alkate berria izango da, eta, uneotan, beste zerbaiti buruz idazteari ez diot zentzu handirik ikusten. Arazoak arazo, akatsak akats eta oztopoak oztopo, Asiron gure hiriburuko alkate izatea ezkerreko soberanisten eta independentisten estrategia aldaketaren, alegia, Euskal Herrian martxan den aldaketa politikoaren arrakastaren ebidentzietako bat iruditzen zaidalako. Uneotan, barne deprimitu eta deprimenteen, arerio zinikoen eta disidente hipokriten kexu eta negarren artean, arrakasta hau errebindikatu behar izatea bitxia eta hein batean are penagarria ere iruditzen zait. Baina, antza, egin behar da.

Hemen esango ditudanak ez dira, inondik inora, mandatuak. Ez aginduaren adieran ezta mezuaren adieran ere. Iradokizunak dira, gogoretak, nireak, bost. Horrela irakurri, arren.

«LET ASIRON BE ASIRON»

Estrategia berriak politikari bikainak azaleratu ditu, lider naturalak, beren betiko lanak baztertu eta momentu historikoa bizitzen ari garela sinetsita proposamen zoro bati baietz esan dioten militanteak. Tamalez, egitura politiko klasikoen jokabideak horietako zenbait erre ditu. Beste zenbaitek eutsi egin diote. Berriak ere sortu dira. Demokrazia apetatsua da, eta, horrelako pertsona bat dagokion ardurak kokatzea lortzen denean, bere dohain guztiak baliatu behar dira. Ez dut Joseba Asiron ezagutzen, baina Iruñeko alkate izateko jaio zela esango nuke. "The West Wing" teleailean bezala [<https://goo.gl/XHLZfh>], Asironi Asiron izaten uztea arrakastaren gakoetako bat izan daiteke. Ondarean aditua da, eta berea bikaina izan daiteke.

ALDAKETA LAU URTE BAINO GEHIAGORAKO IZANGO DA, EDO...

Esan bezala, demokrazia apetatsua da. Adibidez, ziur naiz duela lau urte Donostian hauteskundeak igaro eta astebetara bigarren itzuli bat egin izan balitz emaitzek orain atera direnekin orduan jaso zirenekin baino antz

handiagoa izango zuketela. Ez genuen hori ondo neurtzen jakin. Nafarroako kasuan, eta batez ere PSNri dagokionez, bere oinarri sozial eta instituzionala orain integratu behar dira aldaketan, nolabait, aldaketa ekiditeko boto nahikorik ez dutenean. Hemendik lau urtera, bada ezpada, blokeorako aukera hori baldin badute, erabiltzeko zalantza gehiago izan ditzaten, edo, erabiltzea erabakiz gero, koste politikoa handiagoa izan dadin.

Lobby-ek lan handia dute aldaketa honetan. Enfokatu dezatela presio-lana aldaketarik nahi ez dutenengan eta izan daitezela eraikitzaileak aldaketaren ardura dutenekin. Hobe, ez daitezela *lobby* izan, har dezatela ardura.

GARDENTASUNA ALA HIL

Ez erori klientelismoan. Errepikatu nirekin: «ez erori klientelismoan». Kito. Ez, barkatu: «eta izan profesional, mesedez». Borondate onarekin ez gara urrutira helduko.

Estrategia berriak politikari bikainak azaleratu ditu, lider naturalak, beren betiko lanak baztertu eta momentu historikoa bizitzen ari garela sinetsita proposamen zoro bati baietz esan dioten militanteak

IZAN PIRATA

Barka, ez naiz Donostiako piratez ari, horiei orain balantzea eta aurrera begira zer egin pentsatzea tokatzen zaie. Atzerrian egiten dena pirateatzeaz ari naiz, gurera egokitu, jakina. Caro Ruggeroren gogoeta hau bereziki interesgarria iruditzen zait: "Ciudades inteligentes, ayuntamientos tontos" [<http://goo.gl/WgCNz9>].

FESTA HERRIKOIAK

Harrigarria da kanpoko lagun askok Iruñeko aldaketaren eta San Fermin jaien artean egin duten lotura. Edo orain arte Lesakara joan dira edo ez dakit zertaz ari diren. Zer aldatuko da sanferminetan aurten? Funtsean, ezer gutxi. Edo ez. Ez diegu besteei haiek guri egin zigutena egingo. Guztiok izango gara herritar, festan. Ba al dago hori baino gauza herrikoia? Ospa dezagun, gaurtik hasita!

{ txostena } Jose Angel Oria

DESBERDINTASUNAK GORA

Pobreenen eta dirudunen arteko aldeak gora egin du etengabe azken 30 urteotan herrialde aberatsenetan

Herriar pobreenen eta aberatsenen arteko aldeak gora egin du etengabe azkenengo 30 urteotan munduko herrialde aberatsenetan. Begirale aurrerakoiek askotan salatu duten fenomenoaren berri OCDE Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Erakundeak eman du oraingoan, hau da, «herrialde aberatsen klubak», bere interesen aurkakoa delakoan baitago.

Ezberdintasunak hazkunde ekonomikoak oztopatzen duela diote Jose Angel Gurria kolonbiarrak zuzentzen duen erakundeko adituek, eta arazoa konponbidean jartzeko etxeko lanak jarri dizkiete munduko gobernuei: gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustertuko duten neurriak hartzeko, lanpostuen egonkortasunari lehentasuna emateko eta formazio ekimenei langilearen bitzitza osoan eusteko.

OCDEko adituek egindako txostenak dio herrialde aberatsenetan baino gehiago hazi dela ezberdintasuna garabidean diren potentzietan, suspertzen ari diren herrialdeetan, alegia.

Hazkunde ekonomiko handiko herrialdeetan hori gertatzea normala dela diote adituek, ez litzaiokeela garrantzia handirik eman behar. Txina, esaterako, ezberdintasun handieneko herrialdeen artean ageri da Gini koefizientearen arabera egindako sailkapenetan: 1984an 0,270 koefizientea zuen Asiako erraldoiak; 2004an, 0,465ekoa; eta 2010ean 0,61ekoa. Gero eta okerrago, beraz.

TXINA ETA BRASIL

Gini koefizienteak otik 1era bitarteko balioak hartzen ditu: 0 erabateko berdintasuna da eta 1, berriz, erabateko kontzentrazioa, ondasun guztiak pertsona bakar baten jabetza izango balira bezala; horrela, zenbat eta handiagoa izan koefizientea, banaketan ezberdintasun handiagoa dagoela ondorioztatzen da.

Txinaren kasuan, ezberdintasunak gora egin du ez pobre gehiago edo herritar pobregoa

Orrialde honetan, Rio de Janeiroko irudi bat. Brasilek asko aurreratu du ezberdintasunaren aurkako borrokan, baina oraindik bide luzea egin beharko du antzeko kontrasteak saihesteko. Fred CARDOSO | GETTY IMAGES

Hurrengo orrialdean, Floyd Mayweather AEBetako boxeolaria, borroka bakar batean ehunka milioi dolar irabazi berri dituen gizona. GAUR8



ak daudelako, ikaragarri aberastu diren herritarren kopurua asko hazi delako baizik. Joera horretan arazo handirik ikusi nahi ez dutenek diote Deng Xiaopingek berak esaten zuela herritar batzuk aberastu behar direla aurrera, gero besteek aberasteko aukera izan dezaten. Baina herrialdeko sare sozialetan txinatar erabiltzaileek adierazten dute esaldiaren bigarren zatia ez dela betetzen ari gaur egungo Txina handian, eta pobreak gero eta okerrago daudela.

Brasil ere antzeko egoeran dago. Lula Da Silva PT Langileen Alderdiko burua presidente kargura iritsi zenetik milioika lagu-

nek atzean utzi dute pobrezia, eta ezberdintasunak behera egin du, baina oso handia izaten jarraitzen du. OCDEk berak emandako datuen arabera, eguna pasatzeko bi dolar baino gutxiago zuten herritarrak populazioaren %23,2 ziren 2002an, eta %5,9 besterik ez 2012an.

AFRIKA NON KOKATU?

«Erdi mailako klase berria» sortu da Latinoamerikako potentzia nagusian eta milioika herritar horiek barne kontsumoak gora egitea eragin dute. Adituek diote brasildar askok auto edo moto berria erosteko moduko egoera ekonomikoak dutela

orain. Hala ere, ezberdintasuna AEBetako (OCDEko estatuen artean ezberdintasun gehien dutenen artean dago) baino askoz ere handiagoa da Brasilen, eta, adituek egin dituzte kalkuluen arabera, egungo erritmoari eutsiz gero, hogeitau urte beharko litzukete estatubatuarren parera iristeko. Brasilen kasuan, OCDEk hezkuntzaren kalitatea hobetzeko gomendatu du, arlo horretan oso egoera negargarrian baitago, batez ere irakasleek behar adinako gaitasunik izaten ez dutelako.

Beraz, Gini koefizientearen arabera alderaketak egiteak arazo ugari ditu, oso ezaugarri eta

bilakaera ezberdineko herrialdeak kontuan hartuz gero.

Gauza bera ikusten da Afrika herrietan: kasu askotan datu fidagarriak ez dute, edo orain hogeitaz urteko datuak dira. Belgien bistakoa da kontinentean sekulako ezberdintasunak daudela: alde batetik, tenplu ikaragarriak (munduko meskita eta eliza katolikorik handienak bertan daude, Marokon lehengoa eta Boli Kostan bestea) eraiki dituzten agintari ustelek zenbat ondasun pilatu dituzten ere ez dakite, eta, aldi berean, kontinenteko eremu askotan ezkutuko ekonomia da nagusi, zergarik ordaintzen ez duen bizirauteko nekazaritza, familia aurrera ateratzea beste helbururik ez duen jarduerak. Nola alderatu bi egoera horiek? Gini koeffizientea nola aplikatu hain muturrekoa den egoera batean?

KRISIA, ZEIN KRISI?

Beraz, OCDE erakundearen ezberdintasunari buruzko txostena, klub horretako kideen egoerak aztertzen dituzten da baliagarri. Eta marrazten digun fenomenoak, kezkarria izateaz gain, egungo munduaren bilakaera ulertzeko ere oso lagungarria da (34 herrialde horien artean mundu osoan merkaturatzen diren produktuen %70 inguru ekoizten dituzte), planetan edo-



zein neurritako krisia gertatuta ere, aberatsenak gehiago aberasteko duten joera ez baita batere aldatzen.

OCDE erakundearen sartuta dauden 34 herrialdeetako populazioaren %10 aberatsenak %10 pobreenak halako 9,6 irabazten du gaur egun; 1980ko hamarkadan, halako 7,1; eta 2000n, halako 9,1. Beraz, 7,1; 9,1; 9,6... zenbat aberastu behar dira aberatsenak lo lasai egin ahal izateko? «Une

larrira iritsi gara. OCDE erakundeko herrialdeetan fenomenoak neurtzen hasi ginenetik, ezberdintasuna ez zen inoiz hain handia izan», nabarmendu zuen Gurriak Parisen txostena aurkeztu zuenean.

Marianne Thyssen Europar Batasuneko Lan komisarioa ondoan zuen kolonbiarrak kontinente horretako exekutiboekin mezu argi bat bidali zienean: «Ezberdintasunen arazoari au-

re egiten ez badiote, gobernuek beren herrialdeetako sare soziala ahulduko dute eta era horretan epe luzeko hazkunde ekonomikoa kinkan ipiniko dute», adierazi zuen.

Datu bat ere eskaini zuen Gurriak ezberdintasunaren hazkundearen duen eragina adierazi nahian: OCDEko bazkide diren 19 herrialdeetan (besteetan ezin ziren ikerketa horiek egin, 1985ean oraindik erakundetik

kanpo zeudelako), 1985etik 2005era bitartean ezberdintasunak gora egin izanak eragin zuen 1990etik 2010era bitarteko hazkunde ekonomikoa %4,7 murriztea.


Thomas Piketty ekonomialariak «Capital in the 21st Century» (Kapitala XXI. mendean) liburuan esplikatu duenez, horrenbeste ondasun pilatu izanak beren ondorengoei ere pribilegiozko posizio horri eustea bermatzen die gizaki gutxi batzuei, «oligarkia berria» osatuz, «guztiok» ordaintzen dugun Estatuen laguntzarekin (guztiok dirudunak beraiek ezik, aberatsenak baitira bazter guztietan iruzur fiskal gehien egiten dutenak).

PIKETTYREN ARRAKASTA

Pikettyren lanak sekulako arrakasta izan du AEBetan zein Europan. Zergatik? Vicenç Navarro irakasle katalanak idatzi du herritarrok pilatu dugun haserrearen ondorio dela liburuaren arrakasta: ezberdintasunak berak eta, batez ere, ikaragarri aberats diren horiek eragiten duten haserrearen alegia.

«Gaitzespen maila inoiz baino gorago dago une honetan –idatzi du irakasle beteranoak–. Europar Batasuneko herrialdeetan, esaterako, ezberdintasuna handiegia dela dioten herritarren proportzioa %78koa da; harriga-

OCDE Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundearen Mapa



UKRAINAKO GATAZKAK BALDINTZATUTAKO KLUBA

OCDE Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundearen instituzio kooperatibo bat da, 34 estatuk osatua. Teorian, bere helburua partaideen politika ekonomikoa eta sozialak koordinatzea da. 1961ean sortu zen, honako partaideekin: AEBak, Alemania, Austria, Belgika, Danimarka, Britainia Handia, Estatu espainola, Estatu frantsesa, Grezia, Herbehereak, Irlanda, Islandia, Italia, Kanada, Luxenburgoa, Norvegia, Portugal, Suedia, Suitza eta Turkia. Gero sartuko ziren besteak: Australia (1971), Eslovakia (2000), Eslovenia (2010), Estonia (2010), Finlandia (1969), Israel (2010), Hego Korea (1996), Hungaria (1996), Japonia (1964), Mexiko (1994), Polonia (1996), Txekiar Errepublika (1995), Txile (2010) eta Zeelanda Berria (1973). Kolonbiak eta Letoniak 2013an hasi zuten sartzeko prozesua. Errusiak, berriz, 2007an, baina geldirik dago une honetan, Krimeako auzia dela-eta (Ukraina zena Errusia da egun). Txina, India, Indonesia, Hegoafrika eta Brasilekin harremanak sendotzea erabaki zuen OCDEk 2007an.

AEBetako aberatsenen diru sarreren bilakaera* 1913tik 2013ra



Iturria: Emmanuel Saez

GAUR8

ria bada ere, ia AEBetako proportzio bera (%72). Herritarrak dirudun horiekin nazka-nazka eginda daude, eta aberatsentzat beraientzat okerragoa dena: jendeak ez du uste norberaren posizio soziala merituen arabera denik, hau da, herritarrek ez dute uste aberatsek hain aberats izatea merezi dutenik, ez baitaude posizio horretan egindako merituentatik, oso aberats jaiotezagatik baizik».

AEBetako Occupy Wall Street izeneko giza mugimenduak guztiok ulertzeko moduan adierazi zuen aberatsenen eta pobreenen (edo pobretuenen) arteko gatazka, «kapitalisten klasea» eta konnotazio negatiboak omen dituzten tankerako espresioak erabili beharrik gabe: «%1», horixe baita ikaragarri aberatsen ehunekoak gizaratean, gutxi gorabehera.

Arabiar Udaberriak eragindako giroan Madrilen sortu zen 15M mugimenduak (maiatzaren 15a) inspiratu zuen New Yorkekoa, oso egoera ezberdineko lekuetan ere bat egiteko eta batera aritzeko aukerak sortzen direla erakutsiz. Munduan bizi dugun aro berriaren ezaugarrietako bat, itxaropena eragiteko modukoa.

DITXOSOZKO %1A

Edonola ere, New Yorkeko ekin-tzaileek aipatzen duten %1 horretan, konpainia handietako jabeekin batera, «kapitalaren kudeatzaileak» ere badaude, bankariak esaterako.

Populazioaren zati horren irabazien bilakaerari erreparatzeak egoera hobeto ulertzen laguntzen du. Horrela, 1979an AEBetako gizarte osoaren irabazien %8 eraman zuten, eta handik 28 urtera, 2007an, %17. Bikoitza eta gehiago, eta, noski, markak hausteko borondatearekin jarraitzen dute gainera.

Nolaz horrenbesteko hazkundea? Globalizazioaren ondorioa al da? Teknologia berrien garapenak eragindako fenomenoak, agian? Tankerako interpretazio ugari egin dira hedabideetan, ezberdintasun ekonomikoak politikarekin zerikusirik izango ez balu bezala.

%3

Bigarren Mundu Gerra amaitu zenean hasitako «30 urte oparoetan» produktibitateak %3 inguru egiten zuen gora urtean AEBetan, hau da, langileen soldatek izaten zuten igoera bera. Beraz, aberatsenak eta pobretuenek jasotzen zuten tartaren proportzioa ez zen aldatzen.

Europako iparraldean ditugu ideia horiek hankaz gora botatzeko moduko argudio indartsuak. Bertan soldata handiak dituzte langileek (Euskal Herrian baino askoz handiagoak behintzat) eta zerbitzu sozial sare indartsua dute, nahiz eta herrialde horiek erabat globalizaturatu dauden.

Izan ere, zerbitzu sozialek ezberdintasunak murrizten laguntzen dute, ondasunen tartaren zati bat pobretuenei emanda. Beraz, Suedia, Norvegia eta Danimarka bezalako herrialdeetan oso argi ikusten da garrantzitsuena ez dela globalizazioa bera, globalizazio hori nola egiten den baizik.

Eta arlo horretan politikariek dute erabakia; beraien esku dago behekoen interesak babestea edo goikoen interesei erreparatzea erabakitzea. Politika kontu bat da ezberdintasuna, ez Jainkoak ezarritako «hondamendi naturala»!

U HANDIA

Ezkerretik, berriz, Karl Marx zaharrak asmatutako kontzeptuak erabili ditu analista batek baino gehiagok XX. mendean gertatu

zena esplikatzeko. Klase-borroka, alegia. Kapitala alde batean eta lan mundua bestean: %1a beste %99aren aurka?

Emmanuel Saez Kaliforniako Berkeleyko Unibertsitateko ekonomialariak orain zazpi urte argitaratu zuen ikerketa batek zenbakiak jarri zizkion ezberdintasunaren fenomeno arriskutsuari. Ezberdintasun sozialak neurtzeko, ekonomialariak AEBetako populazio aberatsenak urte bakoitzean herrialdeko aberastasun guztiaren zein ehuneko pilatzen duen azaltzen du grafikoan. Zehatzago esateko, AEBetako populazioaren %10 aberatsenak metatu duena erakusten digu koadroak.

Grafikoak 1917. urteaz geroztik AEBetako populazioaren %10 aberatsenaren «metatze indizea» adierazten digu. Bertan ikus daitekeenez, 1917 eta 1928 bitartean, sektore horri dago-kion AEBetako aberastasunaren ehunekoak gora egin zuen, %40tik %49ra.

1920ko hamarkadan hasitako krisi ekonomiko larriak eta amaiera eman zion Bigarren Mundu Gerrak eragin handia izan zuten sektore horrengan

eta ehunekoak behera egin zuten, %33raino jaisteko.

«30 URTE OPAROAK»

Berkeleyko ekonomialariak «30 urte oparoak» bezala bataiatzen du Bigarren Mundu Gerra amaitu ondoren hasitako aroari, 1970eko hamarkadako petrolio krisiarekin amaitutako aroari hain zuzen ere. Epe horretan AEBetako aberatsenen metatze indizea ia ez zen aldatu. Urte horietan ezberdintasun soziala egungoa baino askoz ere txikiagoa zen.

Alejandro Reuss historialari eta ekonomialariak «30 hamar urte oparo» horietan izandako produktibitatearen bilakaera eduki du kontuan, gertatutakoa esplikatzeko. Jarduera produktibo baten emaitzaren eta produkzio hori lortzeko behar izan diren baliabideen arteko erlazioari deitzen zaio produktibitate, hiztegiaren arabera.

Urte horietan produktibitateak %3 inguru egiten zuen gora urtean, hau da, langileen soldatek izaten zuten igoera berbera. Beraz, aberatsenak eta pobretuenek jasotzen zuten tartaren proportzioa ez zen aldatzen. Ronald Reagan AEBetan eta Margaret Thatcher Britainia Handian agintera iritsi ziren arte!

Emmanuel Saezen arabera, bilakaera horrek 1981. urtean izan zuen inflexio-puntua. Ronald Reagan errepublikanoa Etxe Zurira eta Margaret Thatcher kontserbadorea Britainia Handiko lehen ministro kargura iritsi izanak izan zuen, noski, zeregin horretan. Ordura arteko nolabaiteko egonkortasuna hori apurtu zen. Nola apurtu gainera! Neoliberalismoak du meritu osoa.

Estatubatuar aberatsenak gero eta ehuneko handiagoa pilatzen hasi ziren, eta joera hori ia ez da eten. Nabarmenezko moduko salbuespen bakarra 2000. eta 2001. urteetan aurkitzen dugu, Internetekin zerikusia zuen «Ekonomia Berriak» porrot egin zuenean.

Hala ere, gauzak bere onera etorri ziren, aberatsenei komeni zaien egoerara alegia, eta 2006an 1928ko marka hautsi

Ume bat Nairobiko auzo txiro batean.
Horrelako lekuetan urrik eta
saneamendurik gabe bizi behar izaten
dute herritarrek.
GAUR8


zen. Lehen aldiz, AEBetako populazioaren %10 aberatsenak aberastasun guztien erdia baino gehiago pilatu zuen.

Berkeleyko ekonomialariak beste urrats bat ere eman zuen. Eta %10 horretan, nortzuk dira bilakaera horretatik onura gehien atera dutenak? %1 aberatsenak, jakina! Laz baino gehiago, datorren urtean baino gutxiago. 1980ko hamarkadaz geroztik produktibitatearen hazkundeak eta soldatek izan duten erlazioa ere aztertu zuen Ruessek. Produktibitatearen batez besteko hazkundea %2koa izan da hamarkadotan, eta soldaten igoera %1ean geratu da. Beraz, langileek %2 gehiago ekoizten dute, %1 gehiago kobratzeko. Tartaren zatia murriztu egiten zaie behekoiei, eta, handitu, goikoei. Hori izan da bilakaera eta horiek adituek eman dizkiguten esplikazioak.

GAZTEEN EGOERA

Sindikatuak eta ezkerreko mugimenduei behin baino gehiagotan entzundako proposamenak eskaini zituen OCDE erakundeak, ezberdintasunak murrizteko asmoarekin: lan arloan gerzonen eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzea, lanpostuen egonkortasuna suspertzea eta formazioari bizitza osoan eustea. Izan ere, 1995etik 2013ra bitartean OCDEko herrialdeetan sortutako lanpostuen erdietan baino gehiagotan lanaldi partzialeko kontratuak sinatu ziren, edo aldi baterakoak ziren, edo lan independenteekin zuten zerikusia. Gazteek jasaten dute egoerarik larriena: aldi baterako kontratuen erdia baino gehiago 30 urte bete gabe dituzten gazteenak ziren. Emakumei dagokienez, gizonei baino %16 gehiago kostatzen zaie lanpostu bat aurkitzea, eta, lortzen dutenean, lankideek baino %15 gutxiago kobratzen dute.

OCDEko herrialdeen artean Txilek du egoerarik txarrena. Mexiko, Turkia, AEBak eta Israel ageri dira ondoren. Beste muturrean betikoak daude, Europako iparraldeko estatuak: Danimarka eta Norvegia, eta horiekin batera, Eslovenia eta Eslovakia.



DIRUZALEKERIAK TXIROZ BETE DITU AFRIKAKO HIRIAK

Tshabalala izeneko emakumeak 41 urte ditu eta Hegoafrikako Johannesburgo hiritik gertu den Diepkloof herrian bizi da, metalezko txapa batzuekin egindako etxola batean egotea bizitzea bada. «Hau izan da nire etxea azken hamasei urteotan. Bertan bizi nintzen senarrarekin batera, 2008an hil zen arte. Orain lau seme-alabekin bizi naiz, bi gela baino ez dituen etxola honetan», esplikatu die kazetariari. Tankerako egoeran bizi dira 863 milioi pertsona mundu osoan (889 milioi aurrekusten dituzte 2020rako), NBE Nazio Batuen Erakundeak emandako datuen arabera. Eta Afrikari dagokionez, 570 milioi lagun, 1.100 milioi biztanle dituen kontinentean: populazioaren erdia baino gehiago. Kontinenteko hirietako populazioaren %61,7 bandintza horietan bizi da, gehienak alegia. Hegoafrikan bertan proportzioa ez da hain negargarria: 52 milioi biztanletik, 15 milioi inguru dira tankerako eraikin batean bizi beste erremediorik ez dutenak.

Zimbabwe 835.000 pertsona bizi dira hirien ondoan sortzen ari diren auzo txiroetan, inolako ondasunik ez duten eremuetan, biztanleek beraiek bata bestearen gainean egindako eraikinetan, eta baldintza negargarrietan. Hirietako pobrezia eragindako arazoak ikertzen dituen Reall izeneko Britainia Handiko

governuz kanpoko erakundeak egin ditu kalkuluak eta Gilbert Nyaningwe adituak eskaini du fenomenoaren interpretazioa: «Afrikan ohiko bihurtu da tankerako auzoetan bizitzea. Joera horrekin bizi beste irtenbiderik ez dute. Horren aurka egitea oso zaila da arrazoi ezberdinengatik. Alde batetik ustelkeria politikoa nabarmendu behar da, baina desberdintasun ekonomikoak ere ondorio bera eragiten du».

Langabezia da Afrikako sare sozialeko buruek etxola auzoen fenomeno esplikatzeko gehien aipatzen duten faktorea. Auzo horiek gero eta ugariagoak dira, nahiz eta herrialde horietan, datu ofizialen arabera, pobrezia asko murriztu den, %50 gutxi gorabehera, 1990ean erregistratu ziren datuekiko alderatuta.

Herrialde guztietan ez dute egoera bera. Egipton, Libian eta Marokon etxola auzoetan bizi diren herritarren kopurua %50 inguru jaitsi da, eta, Tunisian, %100. Ghanan, Senegalen eta Ugandan ere asko aurreratu dute: %20ko murrizketa.

Baina hegoalderago joanez gero, joera erabat aldatzen da. Bertan beste inon baino etxola auzo gehiago dituzte: milioika lagun bandintza kaskarretan bizi dira, eta, agian okerragoa dena, ur hornikuntza eta saneamendu zerbitzu egokirik gabe. Agintariek herritarrei

nahikoa zerbitzu eskaini ez izanari leporatu izan diote adituek tankerako auzoen fenomeno. Kamuzu Banda Malawiko presidente zenaren Gobernuan egon zen Hector Mutharika ekonomialari erretiratuak IPS agentziari honakoa esan zion: «Agintarientzat garrantzitsuagoa da altxor publikoaren diruarekin poltsikoa betetzea baliabide horiek pobreziaz etxeak egiteko erabiltzea baino».

Arrazoi historikoak ere badaude egungo egoeraren atzean, Otapiya Gundurama Ruandako ekintzaileak agentzia berari esan zionez. Berak egindako irakurketaren arabera, kolonizatzaileek ezarri zituzten azpiegituren ondorio ere badira etxola auzoak. Garai hartan etxebizitza gutxi ziren eta herritar gehienak jarduera ekonomiko berean aritzen ziren; hirietako agintea erabat zentralizatuta egoten zen eta sortzen zituzten herri eta auzo berriak gutxiengoaren interesei mesede egiteko eraikitzen zituzten. Zerbitzu guztiak puntu batean, eta batere ez ondokoan. Eta orain komerik!

Bestalde, herrialde askotan herritarrek ez dute izaten bizi diren luraren jabetza titulurik. Kasu askotan Gobernuak saldu egiten ditu lurak (atzerriko konpainiei normalean), bertakoei ezer esan gabe. Hirietako auzo horietara joan beste erremediorik ez dute izaten orduan.



Ilyas AKENGIN | AFP

IKUSMIRA

DEMOKRAZIAREN ALDEKO KURDUEN HAUTU IRMOA

Ankarako Parlamentua aukeratzeko hauteslekuak zabal-
tzeko ordu batzuk baino falta ez zirela lehergailu batek
eztanda egin zuen Diyarbakir hirian, HDP alderdiaren
mitin baten erdi-erdian. Bi hildako eta 350 zauritu izan
ziren bildutako jendetzaren artean. 48 ordu geroago,
atentatuak eragindako zauriak estali baina bide batez
ageri-agerian uzten zituen bendajearekin bozkatu zuen
Ipar Kurdistango hiriburuko hautesleku batean atenta-
tuan zauritutako herritarretako batek. Bere botoak, bes-
te milioika botoekin batera, ahalbidetu du HDPk emaitza

historikoak lortu izana, ez bakarrik Kurdistanen, baizik
eta Anatoliako penintsula osoan. Eta ekainaren 5eko
atentatua eta kanpaina osoan kurduak jasan behar izan
dituzten ehunka erasoak agindu eta aurrera eraman di-
tuztenak hautsak harrotzen saiatu dira, kurduen bakea-
ren aldeko apustu irmoa eragotzi asmoz. Azken egune-
tan Kurdistanen izaten ari diren liskarrek horretan
dihardutela agerian uzten dute, baina, oztopoak oztopo,
Kurdistanek demokrazia ikasgaia eman du berriz. Ikasiko
ote du behingoan Turkiak... Dabid LAZKANOITURBURU

BLOOMSDAY

Dublinen barna Leopold Bloomen urratsei jarraika

📁 JENDARTEA / Iñaki Irigoien

Bloomsday Dublin Irlandako hiriburuan urtero ospatzen den egun berezia da. 1904ko ekainaren 16a gogoratzeko ospatzen dute, hain zuzen ere. Horrenbestez, irakurleen galdera ezinbestekoa da: «Zer arraio gertatu zen bada orain dela ehun eta piku urte Dublinen? James Joyce idazlea jaio al zen? “Ulises” liburua argitaratu al zuen? Nobel saria irabazi?». Bada, ez. Hasieran, baina, “Ulises” liburua aipatu dut, eta, agian, berau irakurri dutenek jakingo dute zer ospatzen den Dublinen Bloomsday egunaren kariatara.

1904ko ekainaren 16an kokatzen da “Ulises” liburuko istorioa. Egun bakar horretan gertatzen dira bertan kontatutako Leopold Bloom protagonistaren gorabehera guztiak, eta, hain zuzen ere, horregatik ospatzen da urtero ekainaren 16an Dublinen Bloomsday eguna. Leopold Bloom beraren eta beste pertsonaia batzuen bizitza eta pentsamenduetan oinarritzen da eleberria. Pertsonaietako batzuk errealki dira eta besteak fikziozkoak, eta kontakizuna 08.00etatik hurrengo eguneko ordu txikietaraino luzatzen da.

Bloomsday egunaren baitan, jendea liburuko protagonistak imitatuz mozorrotu ohi da, XX. mende hasierako jantziak jarri. Gainera, Leopold Bloom protagonistaren ibilerak errepikatzen dituzte. Adibide bat aipatzearen, oso ohikoa da eleberraren protagonistak eginiko gosaria errepikatzea. Irlandako gosari tradizional oparoko elikagai ugarietz gain –arrautza frijituak edo arrautza nahaskia, saltxitxak, odolostea, hirugiharra, txanpinoiak, babak, labean egindako tomateak eta patataz eginiko ogia–, gibela eta giltzurrunak ere gosaldutik zituen Bloomek egun hartan.

Baina noiztik eta zergatik ospatzen da Bloomsday eguna? Gezura badirudi ere, “Ulises” eleberria argitara eman eta berehala abiatu zen ospakizuna: 1922an, James Joyce beraren lagun batzuen ekimenez, Frantzian ospa-

Ziurrenik, irakurleen artean oso gutxi jakingo dute zertaz ari naizen Bloomsday eguna aipatzen dudanean. Ez dute jakingo ez zertaz ari naizen ez non ospatzen den. Gutxi batzuek, agian, irakurri dute James Joyce idazlearen «Ulises» liburua, eta horiek, akaso, izango dute gure artean ezezaguna den ospakizun egun honen berri.

tu zen, liburuaren egilea Parisen bizi baitzen garai hartan. 1954ra arte ez zen ospakizuna Irlandara iritsi. Ekainaren 16 famatu hark 50 urte bete zituenean ospatu zuten irlandarrek lehenbizikoz Bloomsday eguna. Urte hartako ospakizunean, eleberrian agertzen den Sandycove herrixkara joan ziren Patrick Kavanagh eta Flann O’Brien idazle irlandarrak, Davy Byrne’s pubean eta 7 Eccles

Street kalean “Ulises”-en pasarte batzuk irakurri asmoz. Bidean, liburuan aipatzen diren taberna guztiak bisitatu zituzten.

Adituek diote Joycek “Ulises” eleberrian aukeratutako data oso garrantzitsua izan zela bere bizitzan. Egun hartan ezagutu zuen gerora bere emaztea izango zena, eta uda hartan bertan erabaki zuen Irlandatik alde egitea. Ondorioz, nahiz eta bere lanetako



asko Dublinen kokatuta egon, gehienak Parisen bizi izan zen bitartean idatzi zituen.

Gaur egun, ordea, Bloomsday eguna ez da soilik Dublinen ospatzen. James Joyce gustuko duten munduko hainbat txokotan ere ospatzen da. Baina Irlandako hiriburuan ospatzen dutenek soilik jarrai ditzakete Leopold Bloomen urratsak. Eta hori esatean ez naiz figura literario bat erabiltzen ari. Ziur naiz Dublin erdialdean paseatzen ibili diren “Ulises” eleberraren irakurle asko jabetuko zirela gune ezagun askotan, O’Connell zubian adibidez, urrats markak daudela. Bada, horietatik dira Leopold Bloomen urratsak.

«Ulises» liburuko kontakizuna 1904ko ekainaren 16an kokatzen da. Bada, Bloomsday egunean XX. mende hasierako jantziak jarri eta Dublinen barna kontakizunaren pasarteak errepikatzea da ohitura.
GAUR8





Ander Gortazar Balderdi
Arkitektoa

Hiriak

arkitektura / hezkuntza / teknologia

Ez dut uste «hiria» kontzeptuaren definizio adosturik existitzen denik. Brotxa lodiz, esango dut hiri bat pertsonen asentamendu handi eta egonkor bat dela, eta pertsonak tartean diren heinean, hiria gatazkak etengabe sortu, kudeatu eta konpontzen diren eremua ere badela.

Maiz, baina, joera bat gailentzen da non hiria hiritarrendik abstraitu edo bereizi egiten den, eta non politikariak gauza xebreak esatera irits daitezkeen, kasu, «ez dezagun denbora gehiago galdu politika egiten, egin dezagun Hiria» -letra larria nirea da-. Ona da Hiriarentzat. Hiri-Proiektua. Hiria Egin.

Dialektika ariketa honen bidez, "Hiriarentzat Ona Dena" balekoa izan daiteke hiritar arruntarentzat, oharkabean pasa erabat, ala desastre bat. Azken finean, Hiria hiritarren gainetik dagoen izate bat da -pentsatuko dute-, Hiria hiritarrak baino luzaroagoan existitzen baita, eta, sorpresarik ezean, hiritarrok baino luzeago biziko da. Zuhaitzak ikusteari utzi eta basoa ikusten dute, zuhaitzak desagertzera.

Hiri Burua. Green Hiriburua; urdina, urdin iluna, kasik beltza. Ala hiri anitza, hiri bizia. Kulturaren Hiriburua -orain, %10 kultura gehiagorekin-. Diseinuaren, kirolaren, bideo jokoaren, basoen, zer edo zeren Hiriburua. Gipuzkoa Hiria, Euskal (Euro) Hiria. Hirien hiri, Eskualde-hiria, Estatu-hiria. Izan nahi duen (baina ez den) hiri. Hiru Hiriak, Hiri Buruzagia; hiri debekatua eta bidaia txartel bat.

Etxe orratzen, motorraren, haizearen hiriak; jokoaren, bekatuaren, bertan gertatutakoa bertan geratzen den hiri. Argiaren eta amodioaren hiri eta suzedaneok: Ekialdeko ar-

giaren eta amodioaren hiriak (20); Mendebaldeko argiaren eta amodioaren hiriak (6). Kanalen hiri eta suzedaneok: iparraldeko (10), ekialdeko (17) kanalen hiriak.

Baina izaera bat aldarrikatzea ez da nahikoa, eta hiriekin ere pertsonekin bezala gertatzen da, ez dela gauza bera nor nahi duzun izan, nor zarela uste duzun, eta egiatan nor zaren.


Adituek, hareharrizko monumentuetan euren izena eta zuhaitzetan euren maitasuna zizelkatzen dituztenen antzera, Hiriak asmatu, sortu eta definitzen dituzte. Hiri utopikoak asmatu, pragmatikoagoak sortu, existitzen direnak definitu. Eta esleituko dizkiete hainbat izen, izena duen oro existitzen dela uste dutelako seguruenik.

Metropolia, metapolia, megapolia, antipolia, anthropolia, christianopolia, intrapolia. Post-it hiri, aldizkako hiri. Instant, berehalako hiri. Plug-in hiri, Collage hiri, Performance hiri. Hostopil Hiri, Pizza Hiri -eta zin dagit azken hauek ez ditudala nik asmatu-.

Hiri difusoa, hiri dispertsoa, lurralde mosaiko-hiri. Lora-tegi hiri. Hiri lineala, Hiri modernoa, Radieuse, distiratsua. Hiri postmodernoa, garaikidea, globala. Olio-orbana den hiri. Hiri sozialista, neoliberala, suprematista, metabolista. Hiri inklusiboa. Hiri eskusiboa. Eko-hiri, jasangarria, erresilientea. Smart Hiri. Hiri digitala, birtuala, Sim Hiri.

Izan zen (eta jada ez den) hiri, agindutako hiri, izatera deitua zegoena, uzkurto egiten dena. Utopia errealitate goiztiar bat baino ez dela zioen Alphonse de Lamartinek, eta gauza bera esan liteke distopiaz. Ez-hiri, zuhaitzik gabeko basoa. •

3 BEGIRADA:



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

Aldaketaren politikak ez du flagelazio erlijiosorik behar

Erlijio monoteistetan zentzia izan ohi du flagelazioak. Fededunek bekatuaren ideia behar dute, damuarena, lurrian bekamenarena, erruaren sentimendu hori gabe salbazioa ezinezkoa dutelako. Mistikoen eta santuen praktikatu zuten flagelazioa, euren gorputz bekatariak dominatzeko bide bezala. Egun ere, kristau arrunt askok, bereziki Aste Santuan, edo musulman xiitek, Axura egunean, praktikatzeko dute. Politikan, ordea, flagelazioa ez da ulergarria, nahiz eta modakoa egin dela uste dudana. Berezi hauteskunde osteko irakurketa eta adierazpen publiko batzuei erreparatu gero.

Egia da egungo politikan eskandalu eta autoflagelazio moralaren gose handia dagoela, ausiki eta melankolia tonuak oso nabarmenak direla, ezkortasun antzua eta kritika amorratua paisaiaren baitakoak. Euria diharduenean jendea busti egiten den bezain egia da, halaber, baikortasun dosiak ematen dituen auto-konplazientzia desagertze zorian dela. Eta okerrak, demontreak eta marmarrak nabarmentzen dituen autoflagelantea izurri bilakatu zaigula. Baina erlijioa eta politika nahasiz, diagnosian aditu asko eta neurri zuzentzaile, erabaki zehatz eta zorrotz gutxi ditugu, eta, horrela, okergabiltza. Aldaketaren politikak gauza asko eta maila oso handia behar baititu, baina flagelazio erlijiosorik ez.

EH Bilduren emaitzei begiratu gero, gozotik eta gazitik dastatu eta hauteskunde ziklo zinez zaila datorrela gogoan, neurrian datza bertutea. Eta herri panoramika bat barneratzean. Imajinatzen baititut anaia-arreba nafarrak Gipuzkoatik datorren flagelazioarekin apur bat harrituta, haserretzen hasita ere bai. Eta ulertzen dut hala izatea. Gaizki egin direnak aitortu, bale, baina sartu eta irten. Aitorpena, zuzentzeko neurriak hartu eta lana, lana erruz eta umil, eta lana pasioz biziz eta disfrutatuz. Ausart eta heldutasunez, zorrotz eta muineraino joaz.

Aldaketaren politika batek maila askotako kontraesanak sortzen ditu. Politikoki pentsatzeko modua eta gure buruz pentsatzen duguna aldatzea eskatzen du, beste hark esango lukeen legez, mentalitateen iraultza bat; gure gabezia, ezin eta errakuntzei begietara begiratzea eta orain arteko gauza asko egiteari uztea. Hori guztia orain arteko jende

berdinak ardura berdinetan egin behar ote duen beste kontu bat da. Atera beharreko lezioak sinesgarri egiten dituen ala ez, zailtasunak biderkatu ala ezinezko bilakatzen ote dituen eztabaidatzekoak baita.

Badago besterik ere. Aldaketarako baldintza objektiboen inguruan asko hitz egin eta idatzi da, aldaketarako denborak direla hauek, gizartearen gehiengo bat alde dagoela... Jendeak aldaketa nahia edukitzea eta aldatu nahi izatea, ordea, ez direla gauza bera ikusi da. Aldaketaren dinamika sistema sozialetan ondo aztertu behar baita, oinarri sano eta praktikoez hornitu, lidergo, zuzendaritza, autoritatea edo eragina bezalako kontzeptuen inguruko lotura eta argipena egin. Epe luzeko gogomira eta epe luzeko moldagarritasun kultura bat eraikitzea, bizpahiru printzipio sustrai eta gaizki ulertutako koherentziaren izenean erlijio egiten diren gai sektorialak beti adaska, behar bada kimatuz eta beharrezkoa bada baita moztuz ere. Kontu asko behar ditu

Egungo politikan eskandalu eta flagelazio moralaren gose handia dago, ausiki eta melankolia tonuak nabarmen, ezkortasun antzua eta kritika amorratua, baina ezin da EH Bilduren kudeaketa «bekatari» bilakatu

aldaketaren politika batek, baina batez ere bi: jende izan eta jendea beti igorle eta hartzaile dela barneratzea; eta, bestetik, «gutarra» ez den jendearekin gogobihotz aritzeko konbikzioa. Eta ahalegin horretan, sor daitezkeen tentsioak ongi etorri, eta, kontraesanak, aurrerabide.

EH Bildu «bekatari» bilakatzea eta are bere kudeaketa instituzionala okerren zaku egitea onartezina da. Nagikeria intelektualetik baino ezin da EH Bildu flagelatu. Bere mugak eta kultura berri baten beharra aitortuta, xarma, indar eta irismen handia baitu. Demontrea ez dago hor, inolaz ere. Sortu zirenak sortuta, desagertu behar direnak konpostatzen jakitean dago erronka, estilo politiko eta antolaketa eredu berri bat konpaktatzeko ongari bihurtuz. Kide onenak gidari, lurralde errealtate eta data zehaztetara itzultzea asmo. Aberria helburu, beti-beti kultura politiko eta lagunarte berri baten ardatz. •

BIDEA IREKIKO DUEN DESAFIOA?

Mikel IBARGOEN

Zita historikoa izan zen iragan igandekoa, Alatzne Etxaburuak eta Irati Astondoak bi emakumezkoren arteko lehendabiziko apustu mistoa –aizkoran eta segan– jokatu zuten eta. 45 ontzako lau enbor ebaki ostean segan jardun zuten ordubetera iritsi arte. Astondoak aizkorako lanak ia bi minutu lehenago bukatuagatik, Etxaburuak 217 kilo belar gehiago ebaki zituen, eta, ondorioz, berarentzat izan ziren partaide bakoitzak jokaturiko 2.000 euroak.

Segalariak izatez baina aizkoran ere ausartak/ emakumeak izanagatik apurtu ditugu markak/ Alatzne eta ni mugarría jartzen ze neska apartak/ orain jarraitu dezala bero guk piztutako txinpartak». Bertso horixe bota du Irati Astondoak –bertsolaría ere bada– apustuak zuen esanahiaz eta garrantziaz galdetuta. Desafioa gauzatuta beste aurrerapauso bat eman dute emakumeek kirol munduan, eta, zehazki, herri kirolean. Izan ere, gizonen arteko apustuek sona handia dute gurean baina emakumeen kasuan orain artean ez zen erreferentziarik. Hala, Astondoak esan bezala, Zizurkilgo zita mugarría izan daiteke, behin lehen harria jarrita segida emateko.

AURREIKUSPEN GUZTIAK BETE ZITUZTEN

Ikusmin handia sortu zen apustuaren atarian eta egunean bertan ere jendearen erantzuna aparta izan zen, 700 lagunetik gora bildu baitziren. Bi modalitate desberdin uztartuta emakumeek jokatzén zuten estreinako apustua zen eta Etxaburuak eta Astondoak egindako lanak bertan elkartutako ikusleak ase zituen. Bi partaideek erakutsi zuten prestaketa lan bikaina burututa oso egoera fisiko onean iritsi zirela hitzordura, eta goi mailako ikuskizuna eskaini zuten erronkak irauñ zuten ordubetea.

Halaber, bazegoen bestelako berezitasunik, izan ere, segan espezialista handiak izan arren, ez bata ez besteak ez zuten aurretik aizkora probatu. Beraz, ez zegoen arlo horretan egingo zuten lanaren gaineko erreferentzia errealik eta horrek jakin-mina are eta handiagoa bihurtu zuen. Dena den, kirolariek aurreko egunetan egindako adierazpenak aintzat hartuta, aizkoran Astondoak hobeto moldatuko zen ustea zabaldua zegoen. Aitzitik, aurreikuspen guztiak hankaz gora geratu ziren lanari ekin bezain pronto Etxaburuak lehenengo enborra aurretik moztu zuenean. Sorpresa handia izan zen Etxaburuarentzat, eta, baita, Astondoarentzat berarentzat ere: «Alatzneri beti entzuna nion aizkoran oso gaizki



Alatzne Etxaburuak eta Irati Astondoak joan den asteburuan Zizurkilén jokaturako desafioa amaitu berritan. Etxaburuak gailendu zen. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Bi modalitate desberdin uztartuta emakumeek jokatzén zuten estreinako apustua zen eta 700 lagunetik gora bildu ziren Zizurkilén. Etxaburuak eta Astondoak egindako lanak bertan elkartutako ikusleak ase zituen

Ordubeteko epea igarota epaileek amaierako txistua jotzean emozio handiko uneak bizi izan ziren, eta, ordura arte aurkari izandakoak, haien laguntasuna berreskuratuz eta kiroltasun handia erakutsiz, besarkada batean urtu ziren

ikusten zela, eta ni berriz, ondo aurkitzen nintzenez, oso lasai joan nintzen lan txukun bat egiteko ideiarekin. Lehia hasi zenean Alatzneren kolpeak mantoago entzuten nituen, eta, hortaz, gauzak ondo zihoazela pentsatzen nuen, baina mikrofonotik Alatznek lehen enborra aurretik amaitu zuela entzun nuenean sekulako kolpea jaso nuen, oso urduri jarri nintzen eta horrek kalte handia egin zidan», kontatu du Astondoak.

Halere, pixkanaka erritmo egokia topatuta gorantz egin zuen Astondoak eta bigarren enborra mozterako aurretik jarri zen 15 segundoko abantailarekin. Tarte gehiago handitu zuen hirugarren eta laugarren enborretan, baina, haatik, Etxaburu gustura geratu zen aizkoran burutu zuen lanarekin: «Nik aizkoran 5-6 minutu galtzea espero nuen. Entrenamenduetan sekula ez nintzen horren ondo ibili, eta, beraz, uste nuena baino diferentzia txikiagoarekin iritsi nintzen bigarren zatira».

Trantsizioa oso azkar egin zuten biek ala biek, ez zuten galdu nahi segundo bakar bat ere. «Inoiz ezin da jakin apustua nola amaituko den. Gerta zitekeen kilo gutxi batzuegatik erabakitzea eta ezin zen denbora alferrik galdu», azaldu du Astondoak.

Astondoa segan minutu eta 53 segundoko abantailarekin hasi zen arren, aizkoran egindako esfortzutik ez zen behar bezala erreperatu eta deseroso sentitu zen belarra mozten: «Aizkoratik beteta atera nintzen eta asko kosta zitzaidan egoerari buelta ematea. Fisikoki ez nintzen gaizki sentitu baina buruak huts egin zidan. Hasieran jasotako kolpeak asko erasan ninduen».

Belarra etzanda eta nahastu samarra zegoen, baina Etxaburu primeran egokitu zen eta erakustaldia eman zuen. Hori bai, atzetik joateak sorturiko tentsioa tarteko bizi-bizi hasi zen segan egoera lehenbailehen iraultzeko asmoz, ez zuen sorpresarik nahi. «Nahiz eta aizkoran espero baino hobeto aritu eta uste baino denbora gutxiago galdu, lehenengo belar sailean itsu-itsuan aritu nintzen. Laguntzaileek ere lasai utzi ninduten nire mar txan tarte horretan. Gero, lehen sail hori aurretik amaitzean lasaitu nintzen zertxobait eta haiek markaturiko erritmoan jarraitu nuen».



Alatzne Etxaburu, aizkora lanetan. Bere hitzetan, espero baino hobeto aritu zen aizkoran eta Astondoak uste baino abantaila txikiagoa atera zion lan horretan.

Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Ordubeteko epea igarota epaileek amaierako txistua jo zutenean emozio handiko uneak bizi izan ziren, eta, ordura arte aurkari izandakoak, haien laguntasuna berreskuratuz eta kiroltasun handia erakutsiz, besarkada bero batean urtu ziren. «Oso lagunak gara baina laguntasun hori aparte uzten dugu lehian ari garenean. Hor bakoitzak bereari begiratzen dio eta helburu bakarra irabaztea da. Hori bai, lanak amaitzean lehian gertatutakoa atzean geratzen da eta berriro ere berdin jarraitzen dugu», kontatu du Etxaburuak. Zaleek ere gozatu ederra hartu zuten eta bi kirolarien lana txalo zaparrada ozen batekin eskertu zuten.

Lanak amaituta belarra pisatzea eta irabazlea nor zen jakitea besterik ez zen falta. Astondoak zigor bat jaso zuen bela-

rra narrasago mozteagatik eta 20 kilo kendu zizkioten, baina horrek ez zuen eraginik izan azken emaitzan eta merezimendu osoz gailendu zen Etxaburu 1.496 kilo ebakita. Astondoaren marka, ostera, 1.279 kilokoa izan zen.

Normala den moduan bataren eta bestearen balorazioak arras desberdinak izan ziren. Alde batetik, Etxaburuaren zoriona: «Ikuskizun ederra eman genuen eta jendea gustura geratu zen. Gainera ez nuen irabaztea espero eta garaipena niretzat zela ikusi nuenean sekulako poza sentitu nuen. Hasi aurretik segan denbora gehiegi galtzeko beldurra nuen baina dena primeran joan zen eta kristoren poza azkenean». Eta bestetik, Astondoaren gan amorrua: «Pozik nago egindako lanarekin baina pena ere badut irabaz nezakeela uste dut eta. Alatzne segan ni baino gehiago dela jakinagatik aizkoran erraztasun gehiago emango zizkidala uste nuen, baina ez zen hala izan. Bestalde, emakumezkoen apustu bat egiten zen lehen aldia zenez eta sorturiko ikusmina ikusita, jendea gustura geratzea ere nahi genuen, baina ororen gainetik nik irabazi egin nahi nuen, eta, beraz, aho gustu gazi-gozoa geratu zitzaidan».

GAOKO LAGUNTZAILEEN MEZUAN

Behar besteko prestakuntzarik gabe oso zaila da kirolean emaitza onak pilotzea, baina fisikoa bezain garrantzitsua da alor psikologikoa ere. Burua hotz mantentzea eta kirioak kontrolatzea ezinbestekoa da plazan nork bere maila eman ahal izateko. Hori da, ordea, bi protagonisten gabezia nagusia. Biek aitortzen dute urduritasun handiz atera ohi direla lehiara. «Ni plazara oso urduri joaten naiz beti, ezer ikusten ez dudala. Nahiago nuke epaile bat entrenamendu batera etorriko balitz eta orduan neurtuko balu nire lana plazara joan beharrik izan gabe. Zentzu horretan buruak ez dit asko laguntzen eta horregatik entrenamenduetan egindakoa txapelketan egitea meritu handiko zerbait da niretzat», zehaztu du Etxaburuak.

Halaber, igandean etxean zuen hitzordua eta hori ere askotan mesederako baino kalterako izaten da kirolarientzat: «Etxean ezagun askoren aurrean aritzea polita da, baina, era berean, ondo egin nahiarekin presio handiagoga jartzen diozu zure buruari...». Gauzak horrela, la-

guntzaileen lana garaipena lortzeko funtsezkoa izan zela esaten du: «Igorrek eta Iñakik oso ondo gidatu ninduten eta beraiek une oro transmititu zidaten patxada izan zen gakoa. Ez ninduten estutu inongo unetan. Ezinean nagoenean estutzen banaute behera egiten dut, baina hauek beti lasaitasuna transmititzen didate eta hori ezinbestekoa da niretzat».

BI EMAKUME KIROLARI

Astondoak betidanik izan ditu oso gertu herri kirolak, izan ere, bere aita – Pabi Astondoa – erreferente bat izan da segan eta trontzan eta bera ere probatzera animatu zen. 14 urterekin sega lehenbizikoz heldu zuenetik aita izan du bidelagun. Apurka-apurka hobetuz joan zen heinean plazara irteten hasi zen. Egun, 24 urte ditu eta gaztea izanagatik esperientzia mordoa du pilatua bizkaitarrak.

Etxaburuaren kasua, berriz, guztiz kontrakoa da. Betidanik kirolaria izan den arren –igeriketan eta bizikletan ibilia da–, duela bost urte Zizurkilgo festetan segan aritzea proposatu zioten arte sekula mundu horretara gerturatu gabea zen. Hasieran ez zuen argi ikusten, baina, azkenean, animatu egin zen. Probatu eta gustatu: «Oso-oso goxoa da, atsegina. Aizkora bortitzagoa da, kolpekako zerbait, baina sega pasa eta belarra nola erortzen den ikusteak segan jarraitzea eskatzen dizu. Erakarri egin ninduen».

Hasieratik egokitu zen ondo segara eta bost urte hauetan bere bilakaera ikaragarria izan da. Egun, bera da emakumeen artean espezialistarik onena: «Ni kalekoa naiz eta zerotik hasi nintzen, ezer jakin gabe eta biziorik gabe. Lehen egunetik txapelketako sega nola egiten den erakutsi zidaten eta hori nire mesederako izan zela uste dut». Aurreko asteko erakustaldiaz aparte, bere lorpenen artean da 2013an erdietsi zuen Euskal Herriko Txapelketa bera.

Astondoa aspalditik zebilen apustu bat egiteko nahiarekin. Etxaburuari luzatu zion lehendabiziko proposamena korrika eta segan egiteko izan zen baina honek ez zuen onartu korrika eroso sentitzen ez delako, eta kontua bertan behera geratu zen. Handik hilabete batzuetara Astondoak apustua jokatu zuen, baina gizon baten aurka, Jokin Garmendiarekin neurtu zituen indarrak. Desafioa baldintza be-



Goiko irudian, Astondoa, eta, behekoan, Etxaburu, biak belarra mozten. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

retan ordu erdian nork belar gehiago ebaki zen, jokoan 600 euro jarrita. Garmendiarentzat izan zen garaipena 380,5 kilo ebakita. Astondoaren marka, berriz, 340,5 kilokoa izan zen.

Duela sei hilabete inguru berriro ere apustuaren gaia mahai gainera ateratu zuten. Orduko hartan Etxaburuak aizkora eta segan egitea proposatu zion Astondori: «Biak sekula aizkora ibili gabeak gi-

nen eta zerotik hasi behar genuen inork abantailarik izan gabe. Gainera, herri kirol garrantzitsuenetarikoa da eta aukera polita iruditu zitzaidan». Astondoak onartu egin zuen erronka. Desafioa urtarrean itxi zuten Tolosako Kantabriko tabernan, herri kiroletako apusturik gehienak lotzen diren tokian, hain zuzen.

Orduki buru-belarri jardun dute presaketa lanetan, sakrifizio handia eginez. Kezka gehiena modalitate berrira nola moldatuko ziren jakiteak sortzen zien eta horretan jarri dute indarra bereziki. Egokitzapen prozesuan Etxaburuak izan zituen arazo gehien: «Asko entrenatuagatik ez nuen asmatzen eta denak mareatu nituen». Astondoaren sentsazioak, berriz, onak izan ziren hasieratik: «Aizkora, egia esanda, oso ondo moldatu naiz. Hasieratik egokitu nintzen nahiko ondo eta oso esperientzia polita izan da».

Prestakuntza eta buruturiko esfortzu hori guztia agerian geratu zen biak lehian eman zuten maila ikusita. «Bai Alatznek eta baita nik ere erakutsi genuen fisikoki oso ondo gaudela eta horrelako probak egiteko gai garela».

APUSTU GEHIAGORAKO BIDEA

Astondoarentzat kolpe gogorra izan zen apustua galtzea eta nahiko burumakur amaitu zuen. «Aurreko apustua ere galdu egin nuen eta orain berriro galtzea gogorra izan da. Garaipen bat behar dut nire buruari gai naizela esateko». Hausnarke eginda ondorio bat ere ateratu du: «Segan asko gozaten dut, baina 180 graduko aldaketa bat egin eta berriro zerotik hasi behar dudala uste dut».

Testuinguru horretan bolada batez apustuak albo batera utziko dituela dio Astondoak, baina, hasieran aipatu moduan, beraiek piztutako txinparta ez itzaltzea espero du: «Emakumeen apustuak hasiko balira izugarri poztuko nintzateke, herri kirolentzat eta Euskal Herriarentzat oso ona litzatekeelako». Iritzi berekoa da Etxaburu ere. «Beti dago aurreneko aldi bat. Gu ikusten izan ziren aizkora eta trontzan aritzen diren emakume batzuk eta ea kontua mugitzen hasteko eta haiek ere animatzeko balio duen. Nik dakidala aizkora ez da emakumeen txapelketarik jokatu eta Nafarroan egingo ote den zurrumuruak daude. Oso positiboa litzateke».

BASERRIKO LANETAN PAREAN; JENDAURREKO DESAFIOETAN, EZKUTUAN

«Esta señorita, muy agraciada físicamente, realizó numerosas exhibiciones públicas de su fuerza y destreza por toda la geografía guipuzcoana bajo la dirección de Errekartetxo». Horixe eta gutxi gehiago gorde da liburuetan Damasa Agirregabiria itziartarrari buruz. Alboko argazkian –1936. urtean Indalezio Ojanguren egindakoa– harria jasotzen agertzen den emakumea da, ondoan Errekartetxo harri-jasotzailea duela. Errekartetxok tarte dezente handiagoa lortu du entziklopedietan. Horrela kontatu izan da historia.

Emakumeen arteko desafioren apenas izan den Euskal Herriko historian. Eta izan badira, apenas kontatu diren. Damasa Agirregabiriari buruz kontatzen da Lasturko plazan aritu zela herriko jaietan harria jasotzen, eta 100 kilokoa altxatu zuela. Balentria hura lortu zuenean hogeita gutxi urte zituela eta emakume indartsua zela ere nabarmentzen dute beren begiz harria jasotzen ikusi zutenek. Baina ez omen zen bera balentria horiek oso kontatu zalea.

ETXE BARRUKO PLAZA ETA JENDAURREKOA

Emakumea betidanik ibili izan da baserriko lanetan etxeko gizonen pare-parean. Plaza hori, etxe barrukoa, bere egin du emakumeak. Baina apenas ateratu den jendaurreko plazara, apustura eta desafiara. Hori gizonezkoen plaza izan da, nahiz eta herri kirolen historian barna izan diren orrialde propioak idatzi dituzten emakume gutxi batzuk.

1908ko martxoan Donostiako hainbat egunkaritan jaso zuten Maria Jesus Ezeizak beste edozein emakumeri botatako desafiara: zeinek egin lehenago Deba eta Zumaia arteko bidea oinez. Ordurako ezagunak omen ziren Aralarko lasterkariaren arteko apustuak. Lasterkariak, emakumeak denak, egunero igotzen ziren herritik mendira artzain zebiltzan etxeko gizonei jatekoa eta edatekoa eramatera. Eta joan-etorri horietan maiz aritzen ziren beren arteko erronkan.

Ezeizak egunero egiten zuen Debako bere etxearen eta Andutz mendiaren arteko bidea, eta sasoi ederrean zegoen. Eta desafiara publiko egin zuen, ordura arte inor egitera ausartu ez zena. Izan omen ziren desafiara jasotzeko prest zeuden emakumeak, baina, azkenean, Gobernuak berak debekatu egin zuen



Damasa Agirregabiria eta Errekartetxo, 1936. urtean, harri bana jasotzen. ©CC-B-ND: Indalezio OJANGUREN. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. GIPUZKOAKO ARTXIBO OROKORRA

apustua, apaiz zenbaitek egindako eskaerari men eginez.

Aipatu bezala, emakumeen arteko desafioren berri apenas iritsi den egunotara. Emakume eta gizonezkoen arteko bateren baten berri asko jota. Hartara, Maria Asuncion Azeo Ezkerraren kasua nabarmentzekoa da, 60ko hamarkadan sona handia izan baitzuen. 37 urte zituen oiartzuarrak eta lau seme-alabaren ama zen. Segalari bikaina zen eta hori jendaurrean erakusteko aukera izan zuen, beste emakume askok ez bezala. Senarrak antolatutako lehen apustua, 1967ko ekainean.

Nonbait Larraza eta Olatzenekoa beren arteko apustua ixteko geratuak ziren Oiartzungo Toki Alai jatetxean eta Olatzenekoa berandutu egin zen. Eta Azeoren senarrak esan omen zuen bere emazteak hark bezainbeste egingo

lukeela segan. Etxera bueltatu zen Maria Asuncioni esanez apustua antolatutako ziola San Pedro egunez. Hilabete baino ez zuen entrenatzeko.

Antonio Larraza Urtizberea izan zuen parean, oiartzuarra hori ere. Hernaniko Jauregi baserrian jokatu zen apustua eta jendetza bildu zela kontatzen dute garaiko kronikek. Garaiko Federación Atlética Guipuzcoana beraren aktan dioenez, «el éxito fue apoteósico. ¿Cuántos espectadores había? ¿Diez mil? ¿Doce mil?».

Ikusmin handia zegoen, garai hartan apenas ikusten baitzen emakumerik jendaurrekoan herri kirolen munduan. Eta, gutxiago, lehian. Denak harrituta geratu omen ziren Azeo galtza luzeak jantzita agertu zenean, denak gonarekin joatea espero baitzuten.

Ordubetezkoan gizonezkoak emakumezkoaren bikoitza moztuko ote

zuen zen kontua. Bakoitzak 50.000 pezeta jokatu zituen.


Amaieran, Larrazak 2.325 kilo ebaki zituen eta Azeok, berriz, 1.896. Aise irabazi zuen, beraz. Adituen esanetan, oso txukun aritzen zen segan Azeo eta garbi samar zegoen hasieratik irabazi egingo zuela.

Handik hilabete batzuetara beste apustu bat jokatu zuen Polipasorekin, garai guztietako segalari onentsuenarekin. Orion jarri zuten hitzordua urriaren hasieran. Azeo ez omen zen oso gustura aritu, osasunez makal samar omen zegoen-eta egun hartan. Baina, hala ere, irabazi egin zuen. Orduan ere Polipasok Azeoren bikoitza ebaki behar zuen irabazteko. Ez zuen lortu, Polipasok 2.193 kilo ebaki zituen, eta Azeok, 1.652.


ZABORREN ZABORRAK

Urtebetean tribu afrikar batean edo gurean biztanleko sortzen den errefusa

10 urteren buruan...



ARAZOA EZ DA HOR HASTEN, ORDEA



AXPI

iRRITZIA:



Ainara
Azpiazu
AXPI

ANBOTO MENDIKO BUZOIA, MENDE BAT HODEI ARTEAN

Borja Valle Sarasketa / Nagore Belastegi Martin

Ehun urte bete dira Anbotoko buzoia harriz osatutako mendi ezagunaren gailurrean kokatu zutenetik. Euskal Herriko lehen buzoia izan zen eta mendizaletasuna sustatzeko helburuarekin jarri zuten. Keinu horri esker, egun apenas den gurean bere buzoia ez duen mendirik.

Durungaldeko gunerik garaienean, Araba eta Bizkaia betiereko besarkada batean urtzen diren lekuan, hodeiak ukitzen badago harkaitz bat, sineskeria eta elezaharren babesleku. Erdi Aroan bizi izan ziren koblakari euskaldunek bertan milaka urtetan gertatuko berri ematen zuten, kantari. Anbotoko haitzari edota bertan bizi den dama misterioitsuari buruz guztiok noizbait entzun izan ditugun mito eta kondaira horien artean, badaude gure oinordekoen inguruko istorio batzuk ere. Horiek ere merezi dute ezagunak izatea, urteen joanak historia ezaba ez dezan.

Garaiko kronikek kontatukoaren arabera, 1915eko maiatzaren 30ean, alpinista «bertutetsuz» osatutako talde txikiak hitzordua jarri zuen Bilbon. Eguraldi txarra egiten bazuen ere animatuta zeuden eta Durangorantz abiatu ziren, 5.40ean. Durangaldera iritsi eta Abadiñon dagoen Urkiolako San Antoniotik igoera hasi zuten unetik bertatik hasi ziren zailtasunak; ibilbidea ez zen atsegina izan, egun horietan eguraldi oso kaskarra baitzuten Euskal Herrian. Pentsa, berez aurreko asteburuan egitekoak ziren Anbotora igoera, baina bertan behera utzi behar izan zuten. Bigarren hitzorduan, baina, aurrera jarraitzea erabaki zuten.

Egia esan ez zen ondo pasatzeko txango soila, baizik eta betebeharrak moral bat. Hiru urte aurretik alpinismoa sustatzeko Bilboko Kirol Klubak (Club Deportivo de Bilbao) hasitako ekimenen parte zen hitzordua. Aipatuko ez ditugun ustekabe askoren ostean, ateraldi bat baliatuz, Anbotoko gailurrera iritsi ziren 11.30ak puntuan. Mendizale gehiago ez zituzten espero, Francisco Coterillo hegazkinlari bizkaitarra akaso, baina zerumuga ez zen abioirik ageri; beraz, segituan ekin zioten buzoia inaurazioari.

Igoera tentuz egin zuten, hamar metroko soka batekin elkar lotuz. 12.00etan jaitsierari ekin zioten eta Urkiolan mendizaleek elkarrekin bazkaldu zuten. Urkiolatik Durangora, berriz, 16.30ean jaitsi ziren azken tren hartu ahal izateko garaiz iristeko.

Mendizale batzuek lebita eta kapela luzeak jantziko zituztela iragarri zuten jendeari erakusteko mendira igotzea ez zela hain zaila, baina antolakuntzak halakorik ez egiteko eskatu zien gainontzeko kideak ez molestatzeko.

Bilboko Kirol Klubeko presidentek, Antxon Bandresek, euskal mendizaletasunaren aitzindarietako bat, buzoien esanahia eta jatorria azaldu zituen bere garaian. Buzoiak mendi gailurrean jartzea ez zen ideia berria atzerrian, batez ere Suitzan eta Alemanian ohitura hori baitzegoen, baina Anbotokoa euskal mendi batean jarritako lehenengoa izango zen. Buzoi horren helburua mendizaleak akuilatzea zen, euren balentrien publizitatea egiteko modu bezala.

Buzoian sartu zuten lehenengo mezua Bizkaiko Diputazioari zuzendutakoa izan zen, mendiari buruzko irakaskuntzak sustatzeko laguntza eskatuz; beste mezu bat Bilboko Udalera zuzendu zuten Pagararrin aterpe bat eraikitze erabakiagatik zorianak emanez; klubeko kideak eta beste kirol klubak ere gogora ekarri zituzten. Idatzi ofizialen atzetik beste mezu asko iritsi ziren, tartean astekari bati zuzendutako bertso sorta bat zeramana.

Ekainaren 8an Bilboko alkateak berari zuzendutako gutuna jaso zuen, buzoia erabilgarritasunaren seinale.

On Gervasio de Landajueta sakristauak eta bere lau laguntzaileek egindako lana ere gogoan izan zuten klubekoek, haiek izan baitziren inaugurazioa baino egun batzuk lehenago goraino igo eta egitura kokatu zutenak. Hala esan zuen sakristauak Urkiolara iritsi zenean: «Dena prest dago egun handirako. Oraintxe bertan jaitsi gara Anbototik, bost izan gara eta ederki nekatu gara». Talde txiki hori maiatzaren 21ean igo zen gailurrera, inaugurazio ekitaldia 23an egitekoa zelako, baina, azkenean, esan bezala, data hori atzeratu behar izan zuten. Behin ekitaldia amaituta, ahal izan zuten bezala itzuli ziren bildutako mendizaleak, batak besteari laguntza eskainiz haitzaren lurzoru irristakorren ondorioz ezbeharririk gerta ez zedin.

Anboto 1.331 metro dituen Durangaldeko haitz dotorea da, euskal historian eta mitologian garrantzi berezia duena. Udaitz mendiarekin batera zerumuga ederra osatzen du, kilometro askora ikus daitekeena, eta duen forma zorrotz eta harritsuarengatik ezaguna da oso.



Denborak etengabe aurrera eginagatik, Anbotok berdin-berdin jarraitzen du, dotore zerumuga apurtzen.
Indalecio OJANGUREN

Euskal mendizaletasunaren hastapenetan Anbotora igotzera ausartzen zirenak gutxi ziren. Harkaitzetatik erorita hiltzen ziren ardiak jatera gerturatzzen ziren putreak, berriz, ugariak oso.

BUZOIEN EDERTASUNA GAILURRETAN

Euskal Herriko lehen buzoia izan zen etxe formako hura, eta ondoren beste asko etorri ziren. Egun, Anboton enborra mozten duen aizkora bat dago. Buzoiok duten ezaugarri bitxia da oso zaila dela bi berdin aurkitzea. Adibidez, Gorbeian (1.482 metro) xehetasun osoz apainduriko etxetxo dago; Serantesen (451 metro) hegazkin bat; Lekandan (1.303 metro) Euskal Herriko mapa; Solaieran (1.039 metro) lauburu bat mendizale baten figurarekin; Sasiburun (459 metro) txapeldun gizon baten burua; Artalarran (1.163 metro) Basauriko errugbi taldeak jarritako baloia; Hiru Erregeen Mahaian (2.444 metro) gaztelu bat; Aitxurin (1.551 metro) danbolin bat hiru txisturekin; Urtemondon (788 metro) bota bat; Gasterantzen (801 metro) espazio-ontzi bat; Umandian (1.225 metro) perretxiko bat; Azeron (971 metro) Mundakako olatua; Buruntzan (441 metro) 1936tik geroztik tente mantentzen den etxetxo berde bat...

Egun buzoietan mezuak uzteko ohitura galtzen ari bada ere, oraindik mendizale klubek bazkideei txartelak banatzen dizkiete, joaten diren mendietako buzoietan sar ditzaten; ostean, buzoiak jarri dituzten klubek erregistratu egiten dituzte. Buzoi bakoitzak jarri duen klubaren izena darama mendizaleek jakin dezaten nora iritsiko den euren izena. Horrez gain, mendiaren garaiera ere adierazten da plakan bertan.

Anbotoko lehenengo buzoia hura urtutako burdinaz egina zegoen, eta 260 pezeta balio izan zituen. Bilboko Kirol Klubak ordaindu zituen oso-osorik. Gazte dirudunek klubari hitzeko babes eskaintzeaz gain babes ekonomikoa ere eskaini izan balio, klubak ez zuen esfortzu handi hori jasan beharrik izango.

"T" formako bi oinarriren gainean jarri zuten, horiek lurtean 70 zentimetro sartuz. Guztira 1,20 metroko garaiera zuen; buzoiak 66 kilo pisatzen zituen eta egiturak 46. Aurrealdean plaka batean testu bat idatzi zuten gazteleraz, pixka bat aurrerago euskaraz ere idatzi zutena: «Leku honetara iristen diren mendizaleei eskatzen diegu euren txartela edo izena, herria eta data idatzita dituen kartoia uztea. Txartelean beste testurik agertuko balitz, honakoa Bilboko egunkari guztietan argitaratzeko modukoa izan dadila.



Orrialdeotan, jendea gurdiekin Urkiolara iristen eta bertan egin zuten festaren hainbat irudi.
Indalencio OJANGUREN

1915eko maiatzaren 30ean, alpinista «bertutetsuz» osatutako talde txiki batek, Anboto mendirako bideari ekin zion. Behin tontorrera helduta, egun batzuk lehenago On Gervasio de Landakuelak jarritako buzoia inauguratu zuten

Lehen buzoia hura suntsituta agertu zen egun batean. Antza, artzain bat haserre zen ordura arte guztiz lasaia izandako parajea jendez beteko zelako. Buzoiak mendizaletasuna sustatzeko helburuarekin hedatu ziren euskal mendietan



Kirol Klubean mendizaleen eta haien tes-tuen erregistro bat osatuko da. Beraz, bertara iristen direnen izen eta testuak soilik sartu beharko dira buzoian».


Aste batzuk geroago buzoia apurtuta agertu zen eta ordura arte barruan sartu-tako gutunak harrien artean botata. Dio-tenez ordura arte bisita gutxi jasotzen zi-tuen zonalde horretan ganadua zuen artzain batek suntsitu zuen. Baina artzain haren kexak hutsalak izan ziren, or-dutik aurrera mendizaleak etengabe igo baitira Anbotora. Gaiztakeria hura noiz gertatu zen jakin nahian, mezu bat igorri zuen Bilboko Kirol Klubak galdetuz ea zein mendizale izan ziren Anboton egun horietan zehar; ordurako buzoia tente zegoen edo jada suntsituta aurkitu zuten galdetzen zien klubak mendizaleei.

1915. urtetik Anbotoko ezagutzera gertu-ratu den mendizale kopurua ikaragarria da, bai bertatik mendi gailurretatik baka-riek goza daiteken panorama ikuskatzen delako, bai aspaldiko elezahar eta mitoak arnasten direlako Durangaldeko mendi ezagunean. Gailurrean hodeia badago eta eguzkiaren laztanekin nahasten bada ez da ezer gertatzen, baina, lainoak alde egi-ten badu, Anbotoko dama ere joan egin dela esan nahi du. Orduan bai zorigaitza!

Anbotoko Mari deitu ohi bazaio ere, euskal mitologiako jainkosarik botere-tsuenak badauzka beste bizileku batzuk ere: Aralar, Txindoki, Aizkorri, Muru-mendi, Gorbeia... Baina bere bizilekurik garrantzitsuena, berari gehien gustatzen zaiona, Anboto da. Horregatik, zenbait ahotsek diote euskal mendietan jarri zen lehenengo buzoi hura suntsitu zuena egiatan Anbotoko Mari bera izan zela, gi-zakiek beldurra galdu ziotela ikusirik ha-serretu egin zelako...

PAGO ETA HARRI ARTEAN

Anbotoko igoera bide desberdinetatik egin daiteke. Errazena mendia iparralde-tik igotzea da, Arrazola edo Axpetik gora. Pago baso batetik igaro behar da lehenik, eta, gailurrera iristeko 300 metro inguru besterik gelditzen ez direnean, zuhaitzak desagertu egiten dira eta harria besterik ez dago. Hala ere, gora iritsi aurretik mendebaldera zuzentzen den bidexka bat dago, ardiek eta ahuntzek erabiltzen dutena ura edateko; izan ere, bertatik putzu batzuetara iristen da. Aurreraxe-ago eginez gero tunel bat aurkituko du-gu. Hori da damaren bizilekua, Mariu-riika Koba. Batzuek diote arreta jarriz gero, naturaren isiltasunean, Mariren xuxurla bat ere entzun daitekeela, edo-ta iluntasunaren sakoneran haren aur-pegia ageri dela.



Jaitsiera Urkiolako santutegitik egin daiteke, istorio honetako protagonistek euren abenturari hasiera eman zioten le-kutik, hain zuzen ere. Egun hartan igo zi-renen izen asko gorde dira orain arte art-xiboetan: Antonio Bandres, Luis Dominguez, Braulio Perez, Fidel Morales, Federico Dapousa, Roman Martinez, Galo Garrido, Santiago Alda, Luis Borne, Luis Hermosa, Eusebio Soriano, Felipe Agirre eta Bernabe Makazaga, beste batzuen ar-tean. Orditik Mariren etxera igo direnen zerrenda ezagutzea, ordea, ezinezkoa da. Geroz eta luzeagoa da gienera...

Alpinista «bertutetsu» haiek emanda-ko pauso historikoaren mendeurren os-patzeko jaia antolatatu dute uztaileen 5erako Urkiolako Parke Naturalean. Lehe-nik bildutakoak Anbotora igoko dira mendizale martxa batean, eta, itzultzean, Bilboko Kirol Klubari oroigarri bat eskai-niko diote. Beste kirol batzuek ere izango dute presentzia festan: mendi bizikletak, zaldi ibilaldiak, eskaladak...

Indalencio Ojangurennek buzoia jarri zuten egunean zein beste mendi ibilaldi batzuetan ateratako argazkiak ere ikus-gai izango dira erakusketa eder batean. Horiei esker erraza izango da imajinatzea nola igotzen ziren mendira garai batean eta zergatik ez zen orain bezain erraza. Kaleko arropa eta zapaten orde-z Gore-Tex jantzi eta botak izan balituzte...



Arantxa Urbe
Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Nola dakigu ikasi dugula?

arkitektura / hezkuntza / teknologia

3 BEGIRADA:

Afrikar tribu bateko kideek ohitura ederra omen dute. Norbaitek desegokia den zerbait egiten duenean, herrixkaren erdialdera eraman eta inguratu egiten dute. Bi egunez, dagoeneko egin dituen gauza onak esaten dizkiote. Tribu horrek pentsatzen omen du gutako bakoitza mundura pertsona on gisa etorri dela. Akatsak, desio dugun segurtasuna, maitasuna, bakea eta zoriontasuna eskuratzeko ahaleginean egiten ditugu. Komunitateak akats horiek laguntza oihu gisa entzuten ditu. Tribua elkartzen da pertsona horri benetan zein den gogorazteko, eta bere izatearekin galdu duen lotura berreskuratu arte inguratzen du, bere egia oroitu arte: «Ni zintzoa naiz».

Sawabona Hegoafrikan erabilitako agurra da; “nik errespetatu eta baloratzen zaitut, garrantzitsua zara niretzat” esan nahi du. Agur horri *shikoba* erantzuten diote; “orduan, zuretzat existitzen dut” esan nahi du.

Azterketa eta ebaluazio garaia bihurtu dugun honetan ez ote ditugu gure ikasleak, sarritan, bere ezinen eta lortu gabeko guztien erdian jartzen? Nola, zertarako eta zeinentzako ebaluatzen ote ditugu?

Galdetuko baligukete ea nola dakigun ikasi dugula inork gutxik esango omen luke azterketa gainditu delako dakiela. Haatik, azterketak dira modurik ohikoena gure ikasleen jakintza balioesteko.

Baina zer gertatzen da ezagutzeekin? Gutako gehienok azterketa egiteko garaian bagenituen, eta, azterketa ondoren, ez. Hezitzaile kolonbiar bati entzun genion esaten ikasle on eta txar gisa sailkatzen gaituztela. Kaskarrean azterketa aurreko bost minutuetan ahanzten zaie ikasitakoa, eta, onei, azterketa egin eta bost minutura. Horra hor, batzuen eta bestearen arteko aldea!

Azterketak balio al die ikasleei, ordea, notez gain ikasteko beste arrazoi batzuk badirela ikusteko? Eta guri, berriz, azterketak ez ote zaizkigu tresna baino helburu bihurtu? Ebaluatzeke modua berrasmatu beharrean gaude.

Pentsa dezakegu ikaskuntza-irakaskuntzaren prozesuak laguntzeko helburua duen ebaluazio batean, ebaluazio formatiboan: ikaskuntza prozesuak hobetzeko, ikasle bakoitzak gehiago eta hobeto ikasteko; hezitzaileek beren jarduna egunez egun hobetzeko; eta ikasgelako martxa hobetzeko.

Pentsa dezakegu, bestalde, hezitzailearekin elkarlanean ikasleek parte hartzen duten ebaluazio-prozesuan, ebaluazio partekatuan, demokratikoan. Izan ere, ebaluazioak inplikazio etiko indartsuak ditu, zerikusituzena du boterearen erabilerarekin. Haiekin eztabaidatu beharko genituzke ebaluazio irizpideetatik hasi eta beren azken inplikaziora arte. Eredu demokratikoa erabili dutenek ikusi dute emaitza, ikasleen parte hartzea eta elkarbizitza hobetu egin da gelan.

«Zertarako ebaluatu nahi dut? Norentzat ebaluatu nahi dut?». Erabaki beharko genuke ikasleak kalifikatzeko edo irakaspenak hobetzeko ebaluatu nahi dugun, azken finean.

Horren arabera aukeratu beharko dugu zertan eman denbora gehiago eta zertan egin gure ahalegina: ikasleei nota jartzen soilik edota denbora eta ahalegin hori erabiliko dugun, batez ere, gure ikasleek gehiago eta hobeto ikas dezaten, eta guk, hezitzaile gisa, pixkanaka hobe dezagun.

Hezitzaileagoak, demokratikoagoak eta formatiboagoak diren ebaluazio-ereduetan sakondu beharko genuke...

Etixerako bidean Mikelekin egin dut topo. Aulki gurpildunetik begiratzen dio munduari aspaldi. Hezitzaile begiak dauzka berak ere, urte askotan eskolak eman baitzuten.

Azkar batean agurtu dut, etxean zuzentzeko zain ditudan azterketa pila deika dudala. Nire pauso eroari harri-duraz begira dudan Mikelek haxe esan dit: «Zoriontsua da edo ez da zoriontsua izan beharko luke notak».

Une batez nire pausoa mantsotu eta hitz haiek atzean gorderik duten mezuak ihes egin ez diezadan tinko eusten ahalegindu naiz. *Sawabona* esan behar diet nire ikasleei, ea haiengandik *shikoba* entzuteko zoria dudan! •



Azterketak ez ote zaizkigu tresna baino helburu bihurtu? Juan Carlos RUIZ | A. PRESS

{ koaderno } Iker Barandiaran

Gipuzkoarron kritikotasuna (II)

Orain dela hiru urte pasatxo Bizardunak taldekoei egindako elkarrizketa batean honakoa esan zidaten: «Espainiako ezkertiarrek Boliviatik, Venezuelatik edo gipuzkoarren-gandik ikasi beharko lukete». Bizarrean bai, baina mingainean ilerik ez zuen talde horretako kideak atsekabetuta zeuden erreinu zaharraren kudeaketarekin, eta inbidia sana erakusten zuten Andia mendilerroaren bestaldean berriki martxan jarritako kudeaketa gardenago eta parte hartzailegoa ikusita. Antza, orain legealdia bukatuta, Nafarroan argia irteten hasi da kobazulo barrutik; eta, aldiz, gurean AP1eko tunel lodietara itzuliko gara berriro, gardena ez den kudeaketara, alajaina, "Hemen ez da ezer gertatzen", "Guztia dagoenetan utzi", "Ez dugu gauza arrarorik nahi" eta "Juan Carlos Izagirre deabrua da" moduko leloak nagusitzen diren lurralde barera.

Bai, EAJk garaitu du EH Bildu Gipuzkoako Foru Aldundian, Donostiako Udalean eta lurraldeko zenbait udal garrantzitsutan; hala da. Ez dira emaitza onak koalizioarentzat, baina ezta nagusitu den atsekabearen parekoak ere. Indar oso garrantzitsua da oraindik ere, herritarren babes garrantzitsua daukana. Gainera, EH Bildu osatzen duten alderdiak tamalez (edo ez) ohituta daude aginte postuetatik kanpo lan egiten, eta ehunka traba eta oztopori aurre egiten. Eta, horren guztiaren gainetik, koalizioak beste inori ikusi ez diogun autokritika publikoa egin du.

Asko eta asko sinetsita geunden orain dela lau urtekoa olatuaren ertz bat zela, baina ez espresuki haren gaina zenik. Askotan esan ohi da, egiteaz gain, egiten duzula erakutsi behar dela; eta zergatik egiten duzun ere gehitu nuke nik, hori izan baita nire ustetan gabezia handiena. Egiten duzuna esplikatzea eta esplikazio hori jendeari helaraztea. Eta horretan datza pertzepzioaren muina. Zer pentsa, esaterako, agintaldi hasiera-hasieratik Donostiako Udalerako kudeatzeko estilo hurbilagoa eta parte hartzaileagoa eramateaz gain, hiriburuetako auzoei merzitateko –eta aspaldi huts egindako– arreta eta atentzioa eman dien Juan Carlos Izagirre alkatea gipuzkoar askorentzat deabruaren parekoa dela jakitean? Zer ondorio atera daiteke adibide horretatik? Bada, gehiengo handi batek ez dituela zuk, nik eta beste askok kontsumitzen

ditugun hedabideak jarraitzen; eta iturri ia bakarra dutela iritzia sortzerako orduan.

Parametro horietan bakarrik uler dezaket Greenpeace berak asteon txalotutako atez ateko sistemak gizartearen zati batean sortutako mamua; hainbeste, EAJ eta PSOE, mota guztietako gezurrak erabilia, inoiz ez bezala jendea mobilizatzeko gai izan direla. Ondorioz, orain EAJk boterea berreskuratu duen herrietan *txintxilikaixo* famatuak kaleetatik berehala kendu beharko ditu sistema jasanezin honek etsita harakiria egindako herritarren ehunka eta ehunka gorpu koloretako plastikozko poltsatan jaso nahi ez baditu. Hainbeste sufritzen ari dira giza-joak!

Eta, orain, txantxak aparte –txantxa baita gutxieneko orden eta gizalege ohiturak aldatzeko norma bat gezur-rekin eta beldurra medio arma elektoral gisa erabili izana–, pentsatu nahi dut aipatutako azken hori eta EH Bilduren zein beste ekimen txikiagoen kontra existitzen den informazio-blokeo itzela baino arrazoi gehiago daukela Gipuzkoan botoetan atzera egiteko.

Horri lotuta aspaldiko gogoeta bat etortzen zait burura, eta jakin arren EH Bildu alderdi eta sentsibilitate

EAJ eta PSOE, mota guztietako gezurrak erabilia, inoiz ez bezala jendea mobilizatzeko gai izan dira

gehiagoz osatuta dagoela, horra hausnarketa: ezker abertzalea deritzona osatzen dutenek zenbat dute ezkerreko-tik? Gure Euskal Herria txikia eta zabala da zentzu askotan eta denetatik aurki daiteke, baina, zenbait kasutan, eta, esaterako, Debagoiena bertan, ez dakit benetan ezkertiarren garen. Herri honetan abertzale izateagatik "zerga" handia ordaindu behar izan dute askok, eta, kasu batzuetan, norberaren aldetik asko jarri behar da. Agian, horregatik, egoerak bultzatuta ezkerrekoa izate horri ez zaio hainbeste erreparatu. Eta orain, Gipuzkoako Foru Aldundiak ongizatearen alorrean, zergatan, ondasunen kontrolean, birziklapenean eta ingurumenean, besteak beste, aurrerapausoak eman dituzten, esango nuke alde batera utzi ditugula pentsaera eta idealak gure pribilegioen eta erosotasunaren mesedetan. •

Batirtze Cabello zein Mikel Goenaga euskal herritarrak dira, baina Nepalek batzen ditu. Bertan ziren pasa den apirilaren 25ean herrialdea lurrikara gogor batek astindu zuenean. Orain, beldur dira jendeak gertatutakoa ahaztuko ote duen.

Batirtze Cabello irakasle nafarra Nepalen zen oporretan herrialdea suntsitu zuen lurrikara gertatu zenean, Tatorpani herrian hain zuzen ere. Irakaslea Atarrabian, Nepalera hiru hilabeterako joan zen. Lurraren astindua bertatik bertara nabaritu zuen arren, hasiera batean ez zuen pentsatu hondamendia hain handia izan zitekeenik. Pixkanaka, beste bidaiari batzuen kontakizunari esker, lurrikararen gordintasunaz jabetzen joan ziren guztiak, eta, ahal bezala, nepaldarrei laguntza emateko asmoz antolatu ziren. Cabellok Facebooken “Nepal no oficial” orrialdea zabaldu zuen diru bilketa kanpaina bat abiatzeko helburuarekin. Jada 9.000 euro eskuratu ditu. Nepalen zela, ia 3.000 euro erabili zituen janaria erosten, eta bi herritan banatu zuen Topakhara hiriko musikari elkar-tearekin elkarlanean. Euskal Herrira itzultzean, hitzaldi andana antolatu ditu egoeraren berri eman eta laguntza beharraz ohartarazteko, montzoi garaia heldu baita jada Nepalera.

Zerk eraman zintuen Nepalera?

Apirilaren 9an abiatu nintzen. Himalaia mendikatea ezagutu nahi nuen, nire betiko ametsa baitzen. Nepalen hiru hilabete egoteko asmoa nuen. Annapurnako trekkinga egin nuen eta herrialdean barna bidaiatzeko asmoa nuen, bertako kultura eta giroa ezagutzeko. Aldi berean, gobernuz kanpoko erakunde txiki batekin harremanetan nengoen. Hori zen nire hasierako ideia.

Zer iruditu zitzaizun Nepalen aurkitutakoa?

Katmandura iritsi eta hurrengo egunean Pokhara hirira abiatu nintzen. Baimen guztiak eskatu ondoren, apirilaren 12an Annapurnako trekkinga egiten hasi ginen. Zoragarria izan zen. 800 me-

BATIRTZE CABELLO

IRAKASLEA IRUÑEAN

Irakaslea ogibidez, Nepal ezagutzeko desira zuen aspalditik. Bertan zela, apirilaren 25eko lurrikara gertatu zen. Laguntza sare bat josten hasi zen orduan.

Ainara Lertxundi

«Jendeak Nepal bere agendatik kentzen badu, hondamendia izango da beraientzat»

trotan hasi eta 5.416 metroan bukatzen duzu. Paisaiari nahiz kulturari dagokionean, oso anitza da Nepal. Trekkinga bukatzeko bi egun faltan, lehenengo lurrikara gertatu zen, apirilaren 25ean. Nirekin zeudenak beraien enbaxadekin ipini ziren harremanetan. Nire burua apur bat galduta ikusi nuen une horietan. Pokharara jaitsi ginen eta lurrikararik gertatu ez balitz bezala zegoen dena. Eraikinak Katmandukoak baino sendoagoak dira eta hiria bera harri gainean eraikita dago. Katmandu, berriz, harea gainean eraikita dago eta uhin sismikoa azpitik pasatzean eraikinak bota zituen. Sentsazio benetan arraroa izan zen. Jakin badakizu zerbait larria gertatu dela, eta lurrikara bera sentitu duzu, baina ez genuen hondamendirik ikusi gure inguruan. Hiria normal-normal zegoen. Iaz, Ekuadorren nengoela, lurrikara bat izan baita. Ez nuen pentsatu ere egin Nepaleko lehen lurrikara hark halako txikizioa eragingo zuenik. Egun horretan, erabateko normaltasunez jokatu nuen; bazkaldu, siesta egin... Tatorpani izeneko herrian geunden; *tato* beroa datokiko hizkuntzan eta *pani* ura. Arratsaldea bertako ur beroko termetan igaro genuen. Itzultzean, erabat jota zeuden Danimarkako gazte batzuekin topo egin genuen. Haiek gertatutakoa kontatu ziguten. Orduan hasi ginen benetan jabetzen egoeraren larritasunaz. Txileko bikote batekin, argentinar batekin eta Bartzelonako neska batekin nengoen. Lehenik eta behin, enbaxadara deitu genuen informazio eske. Bartzelonako neskak eta nik Gobernu espainolak Indian duen kontsularekin hitz egin genuen. Pokharara joateko esan zigun, leku segurua zelako; telefonoaren bateria beti kargatuta izatea eta janaria nahiz edaria eskuratzea gomendatu zigun. «Zorte on», esan zigun elkarriketa amaitzean. Harrituta gelditu ginen bere erantzunarekin,



batez ere gainontzeko kideen enbaxaden jarrera eta protokoloa ikusita. Latinoamerikako kideak Katmanduko hotel berean bildu zituzten eta, guri, aldiz, «zorte on» besterik ez zigun esan. Nafarroako mutil baten bitartekari-tzari esker, Pokharako musikarrien elkarteko kideekin harremanetan jarri nintzen. Hamabost musika taldek osatzen dute. Lan izugarria egiten ari dira kalean kontzertuak antolatuz. Ekainean zehar Nepaleko musika talde ospetsuenek kontzertuak emango dituzte Pokharan.

Eta horrela bururatu zitzaizun Facebook sare sozialean orrialde bat zabaltzea dirua biltzeko.

Facebooken orrialde bat zabaldu nuen, "Nepal no oficial" izenburupean. Bertan grabatutako bideoak, laguntza eraman genuen herrietako argazkiak... topa daitezke. Orain, Euskal Herrian nagoela, Nepaleko egoeraren berri emateko antolatu ditudan hitzaldien gaineko informazioa ere jartzen dut, eta bertako kontaktuek irudiak eta argazkiak bidaltzen dizkirate, jendeak ikus dezan zer egiten ari garen emandako diruarekin. Kontu korronte bat zabaldu nuen. 9.000 euro lortu ditut jada. Besteak beste, NUPeko langileek, Tafallako txistulari eta dantzariak, Eunate ikastetxeko irakasle eta ikasleek, nik lan egiten dudan ikastetxeko lankideek eman dute dirua. Baita norbanako askok eta askok ere, noski.

Nola bideratu duzu diru hori?

Bada, ia 3.000 euro Nepalentan nengoela gastatu nituen. Arroza, dilistak, olioak, mantak, babesgarriak... erosi eta banatu egin genituen, gehienbat bi herri-tan. Familia bakoitzari janari poltsa bat banatu genien, guztiei berdina. Herriko batek, herritar guztien izen-abizenak idatzita zituen zerrenda batean eta banan-banan deitzen joan ginen, familia bera bi aldiz pasa ez zedin. Oso pozik gelditu ziren laguntzarekin. Joan ginen bigarren herrian etxe guztiak erorita zeuden. Hiru asterako janari nahikoa eraman genien. Hiru nepaldar, Granadako mutil bat eta ni geunden. He-

rritarrek oso pozik hartu gintuzten, ordura arte jaso zuten laguntza txikiagoa izana baitzen.

Handik jakinarazi didatenez, kanpin dendak eta bestelako babesgarriak behar-beharrezkoak dira etxerik gabe gelditu direnentzat, montzoien denboraldia iritsi baita. Bestalde, Pokharako musikari elkarteari komunak erosteko dirua bideratu diot. Garbitasun ezaren ondorioz, kolera bezalako gaixotasunak oso erraz zabal daitezke. Hori gerta ez dadin, komun beharrean daude. Egian esan, hamaika gauza behar dituzte.

Nola jokatu dute oro har Nepalentan lurrikara gertatzean zeuden atzerritarrek?

Pokharan geunden atzerritar gehienok laguntza antolatzearekin genion lurrikararen ondotik. Ni, esan bezala, aipaturiko musika elkartearekin hasi nintzen elkarlanean, baina nire egoera berean zeuden atzerriko beste bidaiari batzuk ere antolatu egin ziren. Beraiekin batera eltxo sareak erosi nituen, esaterako, eta horiek kamioietan antolatu genituen gero banatzeko.

«Turismoak berebiziko garrantzia du Nepaleko ekonomian. Jendeak herrialdea bere agendatik kentzen badu, hondamendia izango litzateke. Nepaldarren hitzetan, laguntzarik onena bertara joaten jarraitzea da»

Beharrezko materiala erosterik ba al zenuten?

Pokharan denetarik zegoen, deus ere gertatu izan ez balitz bezala. Lurrikararen eragina oso eskasa izan zen. Bertako azoketan denetatik zegoen. Musikariekin joan nintzen lehenengo aldian, bertan egin genituen erosketak. Bigarren aldian, beste herri batera joan ginen bertako ekonomia sustatzeko.

Ia bi hilabete igaro dira lehen lurrikararik. Hori gutxi ez eta montzoiak gainean dituzte. Zure hizketaldietan laguntzen jarraitzearen garrantzia nabarmendu duzu, denbora pasa ahala gertatutakoa ahazteko arriskua baitago.

Laguntza handia behar dute. Babesa da lehentasuna. Hiru hilabetez montzoiek gogor jotzen dute herrialdea eta ezin dira egon babeslekurik gabe.

Noiz arte mantenduko duzu Facebookeko orrialdea zabalik?

Nire asmoa hitzaldien bidez laguntza beharra eta Nepalentan egingandako lana gizarteratzea da, eta, zergatik ez, laguntza zuzenean

eskatzea. Bide asko zabalik daude laguntza bideratzeko. Nirea oso bide pertsonala da. Kasualitatez egokitu zitzaidan Nepalentan egotea lurrikara gertatu zenean. Gorputzak nepaldarrei laguntzea eskatzen dit. Jendeak dirua ematen duen bitartean izango dut zabalik orrialdea. Suposatzen dut iritsiko dela une bat non ez dudan diru sarrera gehiagorik jasoko. Orduan, agian, amaitutzat emango dut. Baina oraindik jendea laguntza ematen ari da. Mugitzeko eta dirua ahalik eta azkarren bidaltzeko beharra dute nepaldarrek. Lagundu nahi duenak aukeraturiko du egokien iruditzen zaion bidea. Niri, laguntza zuzenaren bidea proposena iruditzen zait, bertatik bertara bizi izan dudalako egoera. Laguntzaren oso zati txikia iritsi da Nepalera eta Gobernuak oztopoak ipini ditu. Horregatik, zuzenean laguntza azkarragoa eta eraginkorragoa da. Norbaitek lagundu nahi badu, zuzenean egin dezala gomendatuko nioke, ahalik eta bitartekari gutxien erabiliz, alegia. Pokharako musikarrien elkarteak beharren diagnostikoa egiten du, eta, horren arabera, beharrezkoa erosi eta zuzenean banatzen du. Hori da protokoloa. Ez du zentzurik zuk pentsatzea gauza jakin baten beharrean daudela eta benetan hala ez izatea.

Lurrikarak lurrikara, zer mezu helarazi nahiko zenieke irakurleei?

Hitzaldiak mezu positibo batekin amaitzen ditut. Nepaletik iristen zaizkigun irudi guztiek lurrikararekin zerikusia duten arren, zonalde askotan ez du eraginik izan, hortaz, ez dago bertara joateko arriskurik. Turismoak berebiziko garrantzia du Nepaleko ekonomian. Jendea Nepalera bidaiatzera animatuko nuke. Jendeak herrialdea bere agendatik kentzen badu, hondamendia izango litzateke Nepalentzat. Beraien hitzetan, laguntzarik onena bertara joaten jarraitzea da. Urte asko beharko dituzte lurrikarak txikitutako herriak berreraikitzeko, baina beste zonalde batzuk ez dituzte kalte. Benetan sinesten dut herri eder bat ezagutzeko benetako aukera daukagula.



Argazkiak: Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

Betidanik zuen noizbait Nepalera joateko asmoa Mikel Goenaga 34 urteko azpeitiarrak. Gertuko egin zaio herrialdea, betidanik ezagutu baititu gurasoen lagunak, mendi kontuak tarteko, hara joan-otorrian. Heriotzarekin lotura zuzena duten pasarteek ere jarri dute Goenaga Nepalera begira.

Betidanik izan omen duzu Nepalera joateko gogoia. Azpeititik ez ordea, Australiatik egin zenuen bidaia. Zergatik hartu zenuen sorterritik alde egiteko erabakia?

Ikasketaz arotza naiz, baina bizi honetan uste dut denetarik egin behar dela, eta hala egin dut. Suertez edo ez, hala tokatu zait. Alde egitea erabaki nuen garaian ez neukan loturarik Azpeitian: ez daukat etxebizitzarik, ez hipotekarik... Inori azalpenik eman behar ez niola-eta, kanpora joatea erabaki nuen, jende eta toki berriak ezagutu asmoz. Nepalera joateko asmoa aspaldidanik nuenez, trekking batzuk egin eta jende berria ezagutzeko asmoarekin abiatu nintzen.

Nepalera iritsi aurretik, ordea, geldialdia egin zenuen Australian. Noiz zapaldu zenuen lehen aldiz Nepal?

Pasa den urteko urrian joateko asmoa nuen, baina, azkenean, Australiarako bidea hartu nuen. Bost hilabete egin nituen bertan, eta etxerako bidean jarri nintzenez Nepal geratzea erabaki nuen. Hilabeterako bisa lortu eta apirilaren 8an hartu nuen lurra bertan.

Katmandun hartu zenuen lurra, baina begirada mendi aldean jarri zenuen hasieratik.

Nepalera iritsi aurretik kontaktu bat egin nuen, eskola batean irakasle bezala zebilen katalan bat. Bestalde, entzuna neukan euskal herritar batek trekkingak egiteko agentzia bat zuela... Nepal engingo nuen hilabetean trekking pare bat egiteko asmoa nuen; Annapurnako oinarritzko kanpalekura doana edo Everesteko oinarritzko kanpalekurakoa,

MIKEL GOENAGA EZENARRO

Lurrikarak harrapatu zuen Nepalen, tatuaje bat egiten ari zela. Arduratuta dago herrialdeak izan dezakeen etorkizunaz, baina bueltan izango da, ziur.

Aimar Etxeberria Korta



besteak beste, helburuen artean nituen.

Trekkingik ez, ordea, azkenean. Hala hobe?

Bost egun egin nituen Katmandun hiriko txoko ezberdinak ezagutzen. Pixkanaka, ordea, Annapurnako oinarritzko kanpalekura gerturatu nahi nuen. Autobusa hartu eta Pokhara hirira abiatu nintzen. Herrialdearen mendebaldean geratzen den hiria da eta bertatik Annapurnako trekkingaren zirkuitu osoa egiteko aukera dago. Pokharan nintzelarik, osasunez ongi eta trekkinga egiteko behar nuen baimena erosita, eguraldi txarra sartu zen. Goizetan argituta esnatu ohi zen eguna, baina orduak aurrera egin ahala okerre- ra egiten zuen eguraldiak. Horrenbestez, mendira ez joatea erabaki nuen. Pentsatu nuen mendia hor egongo zela gero ere, eta aurrerago denbora izango nuela itzuli eta trekkingen bat egiteko. Hori hala, Katmandura itzuli nintzen.

Uste dut tatuaje bat egiteko asmotan ere bazinela aurretik...

Banekien aurrez bertan egotea tokatzen zitzaidan egunetan tatuatzaileen konbentzio bat ospatuko zela Katmandun. Aurretik tatuatzaile estatubatuar

batekin harremanetan jarrita nengoen, tatuaje bat egiteko asmoa nuen eta. Hala, apirilaren 24an iritsi nintzen Katmandura, eta larunbat goizean, tatuatzaileen konbentzioa hasita zegoela-eta, tatuajea egitera gerturatu nintzen.

Tatuajea eta lurrikara, biak iritsi ziren ordea.

Mendira joatea baztertuta, Katmandun nintzen. Hasieran aipatu dudana lagun katalanarekin geratu nintzen larunbat horretarako. Jaiki eta tatuatzaileen konbentzioa ospatzen zen hotelera bidean jarri nintzen, tatuajea egin asmoz. Nepal en egunero mozten dute argi indarra, egunero baina ordutegi ezberdinean. Horregatik, eraikin handiak prestatuta egoten dira bateriak martxan jartzeko, argi indarririk gabe ez geratzeko. Nazioarteko konbentzio bat izanik, jende dezente aurkitzen zen hotelean, tatuajeak egiten horietako asko. Aurrez kontaktua egin nuen tatuatzailearekin elkartu nintzen. Bion artean irudia erabaki eta tatuajea egiten hasi zitzaidan.

Buruz gora etzanda nengoen, eta, bat-batean, argi indarra joan zela sumatu nuen. Arraroa zen argi indarra joan izana, bateriak ez aktibatu izana baizik.

«Euskaldunok bereziki lagundu behar dugu Nepal, ohiko helmuga baita guretzat mendizaletasuna medio»

Segundo batzuen buruan lanpara guztiak mugitzen hasi ziren. Tarte horretan blokeatuta geratu nintzen, eta ez nuen erreakzionatu... lurrikara bat zela oharatu nintzen arte. Bizitzan lehen aldiz pentsatu nuen bertan seko geratuko nintzela... Jaiki eta korrika abiatu nintzen. Dena erortzen hasi zen; lanparak, estatua... Lurra ere mugitzen ari zen eta hankaz gora erori nintzen.

Korrika abiatu zinela diozu, baina nora?

Eraikinean aurkitzen ginen guztiok –milaren bat edo izango ginen– hotelaren kanpoko aparkalekuan bildu ginen. Hainbat pertsona zeuden zaurituta, baina ez zegoen hildakorik. Niri, suertez, ez zitzaidan ezer gertatu. Aparkalekuan denbora luze joan zen, bizpahiru orduko kontua izanagatik ere. Une batez hotelera sartu eta etxera deitza lortu nuen, jazotakoaren berri izan zezaten. Amarekin hitz egin eta gutxira telefono sare guztia erori zen.

Nola igaro ziren lurrikararen ondorengo orduak?

Hiriko toki seguruenetako batean ginela esan ziguten, eta hainbat turista eramán zituzten autobusean gu ginen tokira. Shock egoera zen nagusi bertan, eta ez jakintasun handia zegoen. Nire ostaturia hiriaren beste aldean zegoen, eta hara itzuli nintzen larunbatean bertan. Ostatura bidean, kaleetan zehar igarotzean, hasi nintzen jazo zenaren dimentsioa ulertzen. Lurrak mugitzen jarraitzen zuen, eta jendea laguntzera joanez gero zeure burua jartzen zenuen arriskuan.

Ahal zen bezala, ostatura iritsi nintzen. Eraikina ondo zegoen, baina barruan ezin genuela egon esan ziguten. Ostatuaren kanpoaldean elkartu ginen, beraz. Orduak aurrera egin eta inolako informaziorik gabe jarraitzen genuen. Gaua ere ahal zen moduan igaro genuen, kalean, lurrikararen erreplikak jarraitzen zuten bitartean.

Igandea eder argitu zen, baina egoera surrealista zen, pelikula



Argazkiak: Jon URBE | ARGAZKI PRESS

«Iritsi bezain pronto izan nuen sentsazioa izan zen aspaldidanik ezagutzen nuen herrialde bat zapaltzen nuela. Beso zabalik hartu ninduten Nepalen joan nintzen toki guztietan»



batean ginela zirudien. Jende asko bere kabuz aireportura alde egiten hasi zen, baina hura gain hartuta zegoela eta, asko itzuli beharrean suertatu ziren. Igande eguerdian, baina, beste lurrikara bat egon zen; txoriak mugitzen hasi ziren eta segituan nabaritu genuen zer zetorren. Kale erdian jarri ginen zutik, elkarri heldu eta bertan aguanta-tu genuen.

Noiz eta nola lortu zenuten Nepaldik irtetea?

Lurrikara izan eta egun batzuetara jabetu ginen komunikabide espainiarrak esaten ari zirela hegazkin bat jarriko zigutela New Delhira, bertan baitzegoen Jose Manuel Garcia-Margallo Atzerri ministroa, handik Madrilera eramateko. Hori entzutean, Espainiako enbaxadara bertaraztea erabaki genuen. Oso ondo hartu gintuzten, eta janaria eta guzti eman ziguten. Jende gehiago etortzekoa zela ohar-tarazi, eta, behin guztira zenbat ginen ikusita, itzulerako hegaldiaz hitz egiten hasiko ginela esan ziguten.

Itzulera ez zen, ordea, espero edo nahi zenuen bezain erraza eta azkarra izan...

Egunek aurrera egin ahala adierazi ziguten hegazkin bat izango

genuela, baina 150 pertsona ginela eta hegazkinak New Delhira bi buelta egin beharko zituela aurreratu ziguten. Aireportua, ordea, erabat gain hartuta zegoen. Jendea uholdean joan zen bertara herrialdetik atera nahian, baina askok hirietara itzuli behar izan zuten aireportuan ezer egitekorik ez zeukate-larik.

Komunikabideetan Espainiara eramango gintuztela esaten ari ziren bitartean, baina, guri New Delhin utziko gintuztela esan ziguten. Orduan, jendea komunikabide espainiarretara deitzen hasi zen, egoeraren berri emateko. Azkenean, lortu genuen New Delhitik Madrilera hegazkina jartzea. Indiako hiriburuan egun bat igaro eta 47 pertsona itzuli ginen Madrilera. Lurra hartu orduko bertan geneukan zain Atzerri ministroa, eta argazkia atera behar izan genuen berarekin.

Zer-nolako egoera utzi zenuen Nepalen? Eta zer sentsaziorekin egin zenuen Euskal Herri-rako bidaia?

Pobrezia galanta dagoen herrialdea da Nepal. Ezin dut ulertu nola den posible jendeak –turismo bidez batez ere– hainbeste diru uzten duen herrialdea izanik gero diru hori non geratzen

den ez jakitea. Bestalde, iritsi bezain pronto izan nuen sentsazioa izan zen aspaldidanik ezagutzen nuen herrialde bat zapaltzen nuela. Bertako herri-tarrak oso irekiak dira, dena emateko prest dagoen jendea da. Beso zabalik hartu naute joan naizen toki guztietan. Herrialde pobrea da, ordea. Eta gertatutakoa gertatu ondoren, are okerrago geratuko direla iruditzen zait. Erabat atzera gera daitekeen herrialdea da, eta txarrena jendea gertatutakoaz ahaztea dela iruditzen zait. Lurrikara pasa berri, montzoien garaian sartuko dira laster, eta ez dakit nola egingo dioten aurre guztiari. Pena handiz utzi nuen Nepal, nahiz eta bueltatzeko asmoa daukadan.

Bueltatzekotan zarela diozu. Noiz eta zer asmorekin itzuliko zara Nepalera?

Bueltatzeko asmoa daukat, baina ez dakit noiz. Montzoien garaian sartzera doaz eta... Hala ere, laguntza eman behar dugula iruditzen zait, bestela oso gogorra egingo zaie eta montzoi garaiari aurre egitea. Gainera, iruditzen zait euskaldunok modu berezi batean lagundu beharko genukeela, ohiko helmuga izan dugulako Nepal gure mendizaletasunaren ondorioz. Hemendik jende asko joan ohi da Nepalera, espedizioak direla, trekking egiteko... Eta pena izugarria litzateke gertatutakoa ahaztea. Horregatik, gertatutakoaz ez ahaztea laguntzeko modu bat izan daitekeela uste dut. Gertatu dena gertatu ez balitz Nepalera joateko asmoa zuten horiei guztiei esango nieke euren asmoekin aurrera egiteko eta Nepalera bidaiatzeko.

Aipatu dugu elkarriketaren pasarte batean lurrikara izan zen uneen tatuaje bat egiten ari zela Mikel Goenaga Katmanduko hotel batean, bertan tatuatzaileen konbentzio bat ospatzen ari zela-eta. Bada, erabaki dugu tatuajearen historia bere horretan uztea, airean lagatzea amaitu ote duen ala bere horretan utzi duen, patuaren kontua delakoan.

Difteria kolektiboa

Koldo Sagasti

Girona aldean difteriak kutsatutako haur baten aferak alarma guztiak piztu ditu iritzi publikoan. Ustez, duela 30 urte desagertutako izurriteak haren kontrako txertorik jaso ez zuen umea jo du, eta ondokoengana ere hedatzeko arriskua dago. Bakterioak ongarriztatutako eremua topatu du Kataluniako eskualde hartan, izan ere, bertan haurren %3 gaitz infekziosoaren aurka txertatu gabe daude; ez munduan leku askotan bezala txertoa eskura ez dutelako, gurasoek seme-alabei immunizazioa ukatzea erabaki dutelako baizik.

Haurren txertaketaren aurkako iritzi korronteak gero eta jarraitzaile gehiago dauzka ustezko terapia alternatiboen aldeko

hautua egiten dutenen artean. Gustu guztietakoak daude, oinazea begi ninian irakurtzen dizutenetik hasita, minbizia meditzazioaren bidez sendatzen dutenetara arte. Baina sineskeria horiek guztiek, “alternatiboa” abizena eransten badute ere, komunez ezaugarriak dauzkate betiko erlijioekin: ez dago sendabidearen eraginkortasuna bermatzen duen zantzu zientifikorik, sinistu egin behar da, eta kito; eta ez dute onartzen haien dogmak kolokan jarriko dituen kritikarik, kritika hori arrazoibide zientifiko z jantzita badago ere.

1553an kristauek sutan erreta hiltzera kondenatu zuten Miguel Servet zientzialaria, odol zirkulazioaren berri ematera au-

sartu zelako; Galileo Galilei ere gaitzetsi egin zuen Eliza Katolikoak, 1633an, orduko sineskeria geozentrikoak ezbaian jarri zituelako. Pentsaera zientifikoak beti eragin ditu susmo txarrak, buruari eragitea baino erosoago egiten zaigulako itsu-itsu sinistea, pentsaera kritikoak inguratzen gaituen errealitatea kolokan jartzera eramaten gaituelako. Serveten garaietan inor gutxi auzartu zen izainen bidezko tratamendua zailantzan jartzera, eta milaka lagun hil ziren odolustuta. Gaur, munduko txoko honetan behintzat, gaixotasunari aurre egiteko tresnak ditugun pribilegiatuetakoak gara, baina sinesterrazagoak egiten zaizkigu izainak, haurrak odolusteraino. •

Iraungitze data

Mirari Martiarena

Ekainaren 13an da San Antonio eguna, mundu guztiak daki santu honen bueltan ospatzen direla festak Euskal Herriko hainbat txokotan, Ereñozun, Errezilen edo Urkiolan adibidez. Hau irakurtzen ari zarela imajinatu, ohiturak dion bezala, Urkiolako meteoritoaren inguruan bueltaka ari direla Euskal Herriko neska zahar eta mutil zahar guztiak. San Antoniori eskatzeko senar edo emazte on bana, abestiak dion bezala. Baina noiz jartzen zaio pertsona bati eta bereziki emakume bati “neska zahar” etiketa?

Zenbat urte nituen galdetu zidan orain gutxi 70 urteren bueltako gizon batek. 29 egiteko nituela esan nion. Bigarren galdera

ea mutil-lagunik banuen. Ez zen bere buruan beste aukerarik sartzen nonbait. Erantzun hori nire baitarako gorde eta ezetz erantzun nion. Gizonak irribarretsu jarraitu zuen: «Urtebeteko epea duzu orduan nobioa bilatzeko, 30 urtetik gorako emakumeak gizonoi ez zaizkigu gustatzen». Berriz ere isilik geratzea hobe zela pentsatu eta irribarre egin nuen. Ez nion esan bera bezalako bat ondoan izatekotan hobe nuela bakarrik egon edo ea bere emazteak oraindik 30 urte zeuzkan.

Badirudi gizarte honetan 30 urteren bueltan bikoterik ez izatea delitua dela. Bereziki emakumeontzat. Ai gu gaixook, babestuko gaituen inor gabe. Bakarrik egotera konde-

natuak. 30 urtera arte eskaparatean gaude-nak, 35 urtera arte beherapenetan eta 40 urterekin almazen ilun batean gordeak eta baztertuak. Inongo printze urdinek ez gaituelako aukeratu bere gazteluko neskame izateko. Ez diogulako nonbait San Antoniori senar on bat eskatu behar beste aldiz edo Urkiolan ez ditugulako mareatu arte bueltak eman. 30 urtetan jarri zidan iraungitze data 70 urteko gizonak, baina ez da adin kontua horrela pentsatzea. Nire adin bueltan ere sumatzen baititut iraungitze data horrekin kezkatutakoak eta niri begira hori pentsatzen dutenak. Ustez gaindituta behar zuten ideiak eta aurreiritziak 2015eko San Antonio egunean oraindik ez dira iraungi. •



NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA

Elikagai ekologikoak, planeta zaintzeko modu eraginkorra

Dagoeneko inork ez du zailtasun jartzen poloetako izotzak urtzen ari direla. Gero eta ezagunagoa egiten zaigu ere biodibertsitatearen galera areagotzen ari dela landare, animalia, narrasti eta intsektu espezie ugariaren desagertapenarekin. Horiek eta beste asko aldaketa klimatikoaren erakusleak dira, ingurumenari ematen diogun tratu desegokiaren ondorio zuzenak, alegia. Ingurumenak daukan garrantziaren kontzientzia handituz doa, eta horren erakusle iragan berri den ekainaren 5a izan zen, Ingurumenaren Nazioarteko Eguna. Urtero ingurumenaren babesera, bizitza ematen digun etxe handi honen zaintzara eskaintako eguna da aipatutakoa.

Planetaz arduratzeko modu eraginkor bat elikagai ekologikoak ekoitzi eta kontsumitzea da, elikagaiok naturaren ibilera errespetatuz ekoizten baitira. Izan ere, beren produktiorako ez da ez ongari kimikorik, ez pestizida kimikorik, ez herbizidarik ez eta hazi transgenikorik erabiltzen. Eta horren ondorio, ekoizpen ekologikoak, ingurumena babestuz, kalitatezkoak eta osasuntsuak diren produktuak eskaintzen ditu. Ildo horri jarraituz, Galdakao-Usansolo Ospitalea eta Gurutzetako OSI Ezkerraldea Enkarterriko Unibertsitate Ospitalea mundu mailan ospatzen den Ingurumenaren Nazioarteko Eguna batu ziren berriro, ekainaren 5ean beraien menuak bertoko elikagai ekologikoekin prestatuz. Lehenengoak 2010. urtetik dararama ekimen honekin bat egiten. Bigarrenak, aldiz, 2013tik. Elikagai ekologiko hutsaz osatutako menuak eskaintzeaz gain, egunean zehar ingurumenaren zaintzarekin lotutako ekintza ezberdinak antolatuz zituzten.

Kontuan hartzeko moduko erronka izan zen: Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak 850 menu eskaini zituen, 80 aldaera ezberdinekin, pazienteen beharrei erantzuteko. Kafetegiak berak ere elikagai ekologikoekin prestatutako menua eskaini zuen. Ospitaleko sukalde zerbitzuak, dietetikako zerbitzuaren babesarekin, elikagai ekologikoekin prestatutako plater tradizionalak eskaintzea izan zuen helburu, pazienteen



GALDAKAO-USANSOLO OSPITALEA

zein kafetegiko bezeroen artean elikadura ohitura osasuntsuak bultzatu asmoz. Ahalik eta neurri handienez, tokiko ekoizleak izan ziren ziurtatutako produktu ekologikoak hornitu zituztenak (Arabako Lautadako garbantzuak, Karrantzako jogurtak, Zeberioako okela...).

EUSKAL OSASUN SAREAN, AITZINDARIA

Galdakao-Usansolo Ospitalea, bere aldetik, euskal osasun sarean aitzindaria da elikagai ekologikoekin lan egiterako orduan, 2010etik postre biologikoak eskaintzen baititu. Lehenengo ekimena Ingurumenaren Nazioarteko Eguna dela eta egin zuten 2010ean. Aurten ere, bosgarren urtez jarraian, 300 paziente ingururi menu ekologikoak eskaini dizkiete. Menua, noski, dieta ezberdinen arabera moldatzen dute. Kafetegiak ere hautazko menu ekologikoa eskaini zuen ekainaren 5ean. Galdakao-Usansolo Ospitalean Eurest enpresako dietista den Estefania Armentiak onartzen duenez, elikagai ekologikoak egokiagoak

dira osasunarentzat, eta, gainera, horiek ekoizteko moduak ingurumenaren babesean laguntzen du. Amaia Llorente Ospitaleko Ostalaritza Zerbitzuko buruarentzat ere, ekimen honekin elikaduraren inguruko hezkuntza helarazi eta tokiko enplegua sustatzen laguntzen dute (gertuko nekazariei erostea lehentasuna da).

Llorenteren ustetan, produktu ekologikoak eskaintzea ospitaleak gizartearekiko duen konpromisoaren adierazle ere bada. Horrenbestez, Ospitaleak, gutxienez, plater ekologiko bat eskaintzen du hilean (ekoizleek eskaintako elikagai kopurua arabera gehiago ere izan daitezke). Fruta eta barazki ekologikoak ENEEKren ziurtagiria duen Mungiako ekoizle bati erosten dizkiote. Llorentek azaldu duenez, gainera, Galdakao-Usansoloko kasuan elikagai ekologikoen erosketak ez du aurrekontua garestitzen. Izan ere, hornitzaile ekologiko batekin modu iraunkorrean lan egiten dute eta denborarekin biezatzen onuragarria den akordioa lortu dute.

Ingurumenaren Nazioarteko Egunean menu ekologikoak eskaintzearen ekimenak produktio ekologikoak inguru naturalaren babeserako daukan garrantzia argi erakusten du. Gurutzetako eta Galdakao-Usansoloko ospitaleak, egindako apustua erekin, tokiko enplegua sustatu, ingurumenaren sostengarritasuna bultzatu eta elikagai osasuntsu zein zapoetsuak eskaintzen dituzte. Ekimena abiapuntu izan daiteke ospitaleak era iraunkor batean menu ekologikoak eskaintzen hasteko, bai egun puntualetan bai egunerokoan. Hori urte osoan zehar eginez, Ingurumenaren Nazioarteko Eguna ekainaren 5etik harago eramango litzateke. Planetaren zein gizakion mesedetan, egun guztiak bizi behar direlako ekainaren 5ak aldarrikatzen dituen baloreekin.

Antxon Illaro - ENEEK

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoen Kontseilua



Artzabalgo gaina izango du jomugan Aritz Munarrizek datorren larunbatean. | Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

infraganti ARITZ MUNARRIZ

Ergoiena udalerriko Dorrao herriko baserri batean bizi da, baina lagunartea eta bizitza Etxarri Aranatzan ditu. Beriain eta Andiaren arteko paisaia paregabe du etxea, gogoa beti preso diren minkideekin. Datorren larunbatean Etxarritik Artzabalgo gainera hamabi orduz gora eta behera arituko da lasterketan, erronka latz, solidario eta ederrean.

Arreta piztu du heldu den larunbatean dis-pertsioaren kontra eta euskal presoen askatasuna amets Etxarri Aranatzan antolatu den erronkak. Herritik Artzabaleraino, Maiazaren Lehenean urtero-urtero *meyetza* (zuhaitz moztua) eta ikurrina jartzen diren Etxarriko gain enblematikoraino, hamabi orduz gelditu gabe, herrikide eta kirolari ezberdinak lagun, gora eta behera arituko da Aritz Mu-

narriz Igoa, Dorraon bizi den baina kaleko bizitza Etxarri egiten duen 29 urteko mendi korrikalari prestua.

Ibilbideak 6 kilometroko itzulian 500 metro gorako eta 500 metro beherako desnibela du; zehazki, aldapan gora 2,5 kilometro eta aldapan behera 3,5 kilometro egin beharko ditu Aritz Munarrizek. Kamera eta grabagailuen aurrean jartzea kosta egiten zaion Aritzek aipatu digunez, «ez dakit zenbat igoera eta jaitsiera egitea lortuko duan, ahal diren guztiak, baina

kontua hamabi orduz geratu gabe gora eta behera ibiltzea izango da». Erronka horretan lagun izango ditu hainbat kirolari, etxarriarrak zein kanpokoak, emakumeak zein gizonak, profesionalak zein afizionatuak, profesional izandakoak zein oraindik gazte kategorietan daudenak. Batzuk goraka ariko dira, besteak, beheraka. Aldarrikapena eta kirola, erronka eta ikuskizuna, herri giro polit asko bermatuta dago beraz.

«Herrian denetarik entzuten ari naiz, burutik sano ote nago-

en eta ze erokeria motatan sartu naizen esaten didate batzuek, besteek, aldiz, zenbat igoera lortuko ditudan galdetzen didate. Egindako kalkuluaren gaineko galdera asko egin dizkidate eta gehien-gehienek babesa eta animoak helarazi nahi izan dizkidate. Eskertzekoa da hori, oso eskertua nago benetan», diosku Aritzek, baso eta mendien erdian bizi den korrikalari finak. Ia 1.500 metro dituen Beriain mendi dotorearen magalean eta Andia mendilerroaren babesean bizi da Dorraoko baserri batean, aita, ama, amona eta anaiekin.

«Ez dakit menditik hain gertu bizitzeagatik den, basoek eta tontorrek osatutako paisaia eder hauek sortzen didaten liluragatik den edo zergatik den, baina urteak dira mendiez disfrutatzen hasi nintzela. Azken lau urteotan korrikaka ari naiz, eta, egia esan, esplikatu ezin duan zer berezi bat sentitzen dut mendian gora eta behera nabiltzean». Eta bakardadean mendian korrika dabilenean sentitzen duen horretaz galdetuz, ziplo erantzuten du: «Bizia ematen dit, nolabaiteko askatasun zentzu bat».

Ez du, ordea, dena ahaztu eta abstrakzioa jotzeko tirantzarik korrika ari denean. «Korrikan gauza dezente pasatzen zaizkit burutik; lana, errutina... alboratzeko une egokia da niretzat. Gurekin momentu hauetan ez dauden pertsonetan pentsatzeko momentua ere bada».

Dagoeneko kirol esperientzien bizkar-zorroa aski bete da Aritz Munarrizek. Sara Korrika Trail, Beriain eta Anbotoko kilometro bertikalak, Zuzenien bertikala, Olatzagutia-Urbasa, G2 Haundiak, Apuko Long Trail, Zegama-Aizkorri maratoia eta dezente gehiago egin ditu-eta. Baina, agian, orotan kuttunena herriko ferietan Etxarri bertan egiten den Mendira Joan-Etorria lasterketa da, «parte hartu nuen lehen lasterketa izan zelako».

Artzabalgo gainak, bestalde, badu Aritz Munarrizentzat xarma berezia, «mendian hasi nintzenean beti Artzabalera igotzen nintzen, eta leku honek zinez sentimendu apartekoa pizten

du nire barne-erresuman». Ez du, baina, espresuki prestatu erronka hau. Entrenamendu berezirik ez du egin eta janari mailan ere ez du aparteko ahaleginik egin. «Pasatu gabe baina denetarik jaten dut. Kontutan hartu behar da paraje hauetan urtarrilean eta otsailean ezin dela mendian korrika egin, elurra franko baita. Baina maiatzean Zegama-Aizkorri proba egin nuen, eta, hura prestatzeko hartu nuen sasoi baliatuz Beasaingo G2 Haundiak bezalako frogetan hamasei orduz korrika eginez arituta naizela kontuan hartuz, esan daiteke erronka honi begira ez naizela zerotik abiatzen».

Arbizuko fabrika batean eguneroko zortzi orduz tente lan egiteak, bestalde, hankak eta giharrek dezente kargatzen ditu eta astegunetan ez ohi du luze entrenatzeko aukerarik. «Ordu bat edo bi, eta bale». Astebukaeretan, ordea, pasada handiagoa hartu ohi du entrenatzen, baina, aitortzen digunez, «erronka honi begira ez dut plangintza berezirik egin, ez da hori egitea nire asmoa sekula izan».

Gainera, Artzabalera igoera denak ez dira berdinak izango, eta, aurreikusi duenez, ez du erritmo berebean korrika egitearik izango. «Lagunduko nauten kirolarien arabera izango da. Batzuk sasoi betean egongo dira, besteak aspaldi erretiratutakoak izango dira eta denetara moldatzen jakin beharko dut. Alboan paratzen denaren arabera moldatuko naiz, lagun giroari eutsiz, erronkaren helburua bederatzi, hamar edo hamabi igoera lortzen ditudan ikustea ez dela kontuan hartuta». Hori bai, ez du ezkututzen bere izaera lehiakorra eta hurrengo baterako, zeinek jakin, irekita uzten du apustu zehatzak egiteko aukera. Hots, Etxarritik Artzabaleraino hamabi ordutan hamar igoera baietz! Edo hamaika, hamabi edo dena delakoak! Ikuskizun geratzen da, bada, errepikatzen heldu den larunbateko erronkak hartuko duen forma.

«Nire buruaren kontrako erronka bat egitea betidanik bueltaka ibili da nire baitan»,



Erronka aurrera ateratzeko anaia izan du lagun. | Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

diosku Aritzek. Eta zergatik orain eta honelako bat galdetuta argiro erantzuten du: «Euskal Herrian dugun egoera latza da eta Etxarrin bertan bizi duguna ere ez da batere samurra, zazpi herrikide baititugu espetxeetan eta horietako bat nire txikitako lagun-min handia. Lagun bezala, horixe bizi dudala dispertsioaren joko zikina! Etxarri herri txikia da eta denok ezagutzen dugu elkar, familia batean bezalaxe. Preso dauzkaten etxarriarren hutsunea sumatzen da, hutsune mingotsa da, denborak horitzen duen argazki batetik harago doa. Hutsune sentimendu horretatik ernatu da elkartasuna adierazteko ideia».

Eta behin ideia Aritzen gogoa sustraituta, anaiak «guztia aurrera ateratzen» asko lagundu diola aipatu digu. Baita Etxarriko Sare taldeak ere. Ez baita nola-

nahikoa heldu den larunbaterako prestatu duten egitaraua. Aritzen erronkan, kirolari ezagun andana ariko dira, besteak beste, Aitor Zubieta, Aritz Lasa, Peio Martinez de Eulate eta Oskar Lasa pilotari edo pilotari ohiak, Alex Txikon mendizalea, Gorka Karapeto eta Ekaitz Maiz eskalatazaleak, Goizeder Beltza aizkolaria, Mikel Navarro eskiatzalea, Gorka Verdugo txirrindulari ohi edo Aritz bezala mendi korrikariak diren Alfredo Alonso, Aitziber Ibarbia, Nouredin, Joanes Goitisolo eta Imanol Goñi.

Goizeko zazpian etxeko dio erronkari gogobihotz Aritzek, eta, hamabi ordu geroago, arratsaldeko zazpian, akabera emango dio. Artzabalgogoa mendien magalean bertan paratuko dute «o gunea» eta bertan apartakalekua, zurrupa egiteko barra, musika eta beste izango dira. He-

«Mendian korrika egiteak bizia ematen dit, nolabaiteko askatasun zentzu bat... Dena ahazteko aukera da, baina baita ez dauden lagun presoak gogoan izateko unea ere»

«Etxarrin presoen hutsune mingotsa sumatzen da, eta denborak horitzen duen argazki batetik harago doa; sentimendu horretatik ernatu da menditik elkartasuna adierazteko ideia»

gin kolektiboan. Etxarrin korrika egingo duten bezala, Lasterbidetan ekimenak ere babes polita bildu zuen. Bistan da mobilizazio modu honek babesa jasotzen duela, kirolak eta aldarrikapenak, izerdiak eta kausa justu batetik atxikimendua batzen dutela. Bereziki gure herri honetan, kirolak eta erronkak duten eraginarekin erakusgarri da. Eta presoen egoerak herri psikologian eta norbanakoetan eragiten duen ezinegon edo zirraren adibide da, gure bihotzetan sartzen den labankada baita.

Ez da gutxiagorako. Urruti gabe, Sakanan bertan, astebururo 10.000 kilometro egin behar baitituzte senide eta lagunek haien seme, anaia, alaba, lehengusu edo lagun presoak bisitatzeko. Diru asko gastatu, istripuak beti mehatxu eta ezinegon eta beldurra altzoan. Baina, dudarik ez, Aritzek egingo duen erronkak berak bezala, Euskal Herriaren luze-zabalean egiten diren milaka ekintza txiki-handiek arindu egiten dute zama hori.

Hitzordua, horrenbestez, jarri ta dago: ekainaren 20an Sakana-ko Etxarri Aranatz herrian. Giro polita, presoen absentsia gertuko presentzian, natura eta erronka, gorputzaldia eta sentimendua bermatuta daude. Hori guztia eta bost zain izango dira, beraz, bertaratzen direnen gustagarri, pertsona eta gustu partikular ororentzat aukeran.

Aritz Munarrizek jarriko ditu gogoa, esfortzua eta izerdia, baina, haren anaiak bezala, herritar talde baten esku-kolpeak posible egingo du amets sortu zen ideien gauzapena. Bihotzarekin egindako ekimena, sentimenduak astinduko dituena. Eguraldia eta zortea lagun izan dezatela Etxarrin. Eta zuri, Aritz, animo eta eutsi goiari. Hura ez baita eroriko! •

Mikel Zubimendi



Edurne Larraza Mendiluze
EHUko Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria

Informatikaren irakaskuntza: Code.org

Txoko honetan lehenagore hitz egin da lehen eta bigarren hezkuntzan informatika irakastearen garrantziaz (2014/12/13). Ez da erraza izaten zehaztea zer den irakatsi beharrekoa informatikako ikasgai batean. Izan ere, zer da informatika? Elhuyar, zientzia eta teknologiaren hiztegi entziklopedikoaren arabera, informatika, «**informazioaren tratamendu automatikoaren zientzia da**». Hainbat pertsonari galdetuz gero ordea, jasoko genukeen erantzuna honakoa litzateke: «ordenagailua».

Konputagailuen hasierako eginkizuna eragiketa matematikoak azkar egitea izan zen eta ikasketa aurreratua zuten pertsona gutxi batzuek baino ez zituzten hauek erabiltzen. Gaur egun, ordea, makina hauen eginkizuna zabaldu egin da. Konputagailuak guztion eskura daude eta une oro erabiltzen ditugu ofimatikarako, irudien tratamendurako, jolaserako, komunikatzeko, eta abar.

Horrela bada, informatika jakitea edo ez jakitea, konputagailuak erabiltzen jakitea edo ez jakitearen balioakidea bihurtu ohi da. Autoekin, ordea, gidatzen jakiteak ez du pertsona bat autoetan espezialista bihurtzen eta berdina gertatzen da konputagailuekin. Beraz, «informatika erabiltzailea» terminoa erabili beharko genuke horrelakoetan.

Konputagailuek ez dute baina beti ondo funtzionatzen. Horrelako kasuetan informatika erabiltzaileak ez du jakiten konputagailuaren sistema aztertzen eta akatsa non dagoen esaten. Arazoa konpontzeko, «informatika teknikaria» edo, konputagailua sarean dagoenean, «sistemen administratzailea» deitu behar izaten du.

Gainera, merkatuan ez dagoen aplikazio bat behar duenean, informatika enpresa batekin kontaktuan jarri beharko du aplikazio hori gara dezaten. Enpresa horretan «informatika analistek» bere beharrak aztertu eta diseinu bat egingo dute. Azkenik, «programatzaileek» analistek diseinatutako programa garatuko dute eta horrela erabiltzailearen beharra aseko da.

«Teknologia alda badezakezu, mundua alda dezakezu», dio Youtubeko zu-

zendaria den Susan Wojcickik. «Programatzeak sormena, inspirazioa eta berrikuntza pizten ditu, denak ezinbestekoak edozein lanbidetan», dio Floresa izeneko irakasle batek. Horrelako arrazoietan oinarritzen ari dira hainbat lurraldetan, Nafarroa bera barne, informatika lehen eta bigarren hezkuntzan ezartzeko.

Bi adierazpen horiek Code.org ataritik hartuak dira. Atari horrek, programatzen ikasteko eta irakasteko tresnak eskaintzen ditu eta informatikaren inguruko hainbat pertsona ospetsuk (Bill Gates eta Mark Zuckerberg tartean) babestu egin dute. Ikasleen atala adinaren arabera banatuta dago. 4, 6, 10 eta 14 urtetik goragokoentzako ariketa multzoak eskaintzen ditu eta autoikaskuntzan erabiltzeko oso aproposa da. Sekuentziak, begiztak, algoritmoak, aldagaiak eta funtzioak bezalako kontzeptuak lantzen dira, umeentzat ezagunak diren bideo-joko edo pelikuletako pertsonaiekin jolastuz edo irudi geometrikoak marraztuz. Ez da, ordea, horretara mugatzen,

saio bakoitza nola eraman behar den azaltzen duen irakasleentzako gidoiak ere eskaintzen ditu.

Bestalde, curriculumaren atalean, lehen eta bigarren hezkuntzan zientzia eta matematika gisako irakasgaietan informatikako kontzeptuak nola landu daitezkeen ere azaltzen du, Ameriketako Estatu Batuetako curriculumean oinarrituta.

Ataria sortez ingelesez dago eta atal batzuk beste hemeretzi hizkuntzetara itzuli dira. Pena euskaraz ez egotea, ezta? Bada, UEUko Informatika Sailak, aurtengo udako ikastaroen bidez egoera bideratzeko aukera eskaintzen du: «Code.org: Programatzen ikasteko tresna baten erabilpena eta lokalizazioa» (ikus www.ueu.eus/ikasit/udako-ikastaroa/792). Ikastaroan, Code.org erabiltzen ikasteaz gain, ataria euskarara lokalizatzeke dauden aukerak aztertu eta itzulpena bideratuko duen talde bat osatuko da. Animo! Ikasle euskaldunek merezi dute eta! •

The Hour of Code for All Ages



Hour of Code

Try the basics of computer science with many fun characters!



Frozen

Let's use code to join Anna and Elsa as they explore the magic and beauty of ice.



Infinity Play Lab

Use Play Lab to create a story or game starring Disney Infinity characters.



Flappy C

Wanna write yo in less than 10 our Flappy Cod

20 hour courses for Beginners (all ages)



Course 1

Course 1 is designed for early readers.

Ages 4+ (pre-readers)



Course 2

Course 2 is designed for students who can read.

Ages 6+ (reading required)



Course 3

Course 3 is a follow-up to Course 2.

Ages 8+ (after Course 2)



Course 4

Students taking should have already completed Courses 2 and 3.

Ages 10+ (after Course 3)

Code.org ataria erabiltzen ikasteko aukera izango da aurtengo UEUko udako ikastaroetan. GAUR8

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



Jose MARTINEZ SANCHEZ | BIBLIOTECA NACIONAL DE ESPAÑA

TRENA IRUÑERA IRITSI ZENEKOA

1856ko maiatzean Espartero jenerala Iruñera iritsi zen Iruñea-Tafalla-Caparroso-Zaragoza trenbidearen lanen inaugurazioan buru izatera. Hainbat herritan ez zuten begi onez ikusten trenbidea, Caparroson kasu. Ondorioz, herritik 2 kilometrora eraiki behar izan zuten tren geltokia. 1860an inauguratu zuen Zaragozatik Iruñerako Trenbidearen Konpainiak Nafarroako hiriburuko geltokia. Bertatik abiatzen ziren ibilbidea egiten zuten bi trenak, eta 1865ean Zaragoza-Bartzelona linearekin ere bat egin zuten. II. Gerra Karlistaren baitan, trenbidean kokatuta zeuden hainbat zubi sabotatu zituzten, bai eta ia tren geltoki guztiak erre ere. Iruñeko tren geltokiaren argazkia 1867an hartu zuen valentziarra zen baina Madrilen bizi zen Jose Martinez Sanchez (1807-1874) argazkilariak. Obra publikoen argazkiekin osatu zuen galeria Parisen 1867an egin zen mundu mailako erakusketan aurkeztu zuen.

MUJICA

Miguel Angel Campodonicoren liburua


Iraultzaile baten biografia

Uruguako presidente izatera iritsi zen nekazari eta gerrillari tupamaroaren bizitzaren eta pentsamoldearen gaineko kontakizun bizia: klandestinitatea, atxilotzea, kartzelako ihesaldiak, diktadurak bahitutakoa, politikaria, presidente burkidea...

27. edizioa

Bereziki Euskal Herrirako

**Arnaldo Otegiren
hitzaurrea**



GAUR eta BIHAR **GARA**rekin

11,95€ren
truke soilik

